


TEOLOGILARIEN YARDUNAK



ARKIBIDEA

Itzaurrea	3
-----------------	---

TEOLOJI-FILOSOFI-SAILLA

Aita Santuaren Itza.-Balardi, beneditarra	6
J. Leclerquén liburu bati buruz.-Abelin, karmeldarra.	20
Krisostomo deuna apaiz.-Lebaka, apaizgai	25
Jainkorik bai ote?.-Muxika, beneditarra	31
Kantua gure elizetan.-Etchehandy, beneditanoa.....	35
Arimistia azkorraroan.-Esnaola, prantziskotarra ...	40
Katekesis eta Elizketa.-Mikel Santiago, lasallatzaia.	48

KULTURA-IAKINTZA-ARTEA

Ela-inderrak giza-etorkiari kalte? Bengoetza, sakra- mentinoa.....	52
Charlier Chaplin'en zifre-nortasuna.-Guarrotzema, pran- tziskotarra....	58
Arantzazu-Euskalerra "Arantzazu" poemara.-Iturriots, prantziskotarra...	62

ELKAR-IZKETA

"Aitagurea"... - A. Irigoyen.....	70
"Euskerazko Aitagurea dala-ta" geiago.-Mendizabal, prantziskotarra.....	72
IBINAGABEITIAREN eskutitza	78
EUSKAL-BILLERAK: Hazparne'n.-Erdozaincy-Etchart, prantziskotarra.....	80
Arantzazu'n.- Mendizabal, o.f.m.....	85
Dr. P. L. Henry	91
Dorita Lochak	94
Liburu berriak.....	95

YAKIN

(PRO MANUSCRIPTO)

4 zenb. A R A N T Z A Z U ' N - Udarakoa - 1.957

ĀTĀRĭĀ

Uda-giroaren ondorio itxarona bezela datorkigu YAKIN. Besteek oporrak artzen ibilli diran bitartean gure YAKIN-idazleok garai ontan lamari ekin diote, beren gorputzari zegokion atsedenari zertxobait lapurtuz. Lapurreta bidezkoa eta zillegia burutu deguna!

Ain leiatsu itxaron genun igalia eskuratu zaigu zorionez, estali berriz, mami berriz, idazle berriz... ornitua. Onako ontan idazle berriak ba-ditugu, eta ezin gindezke aurrera joan gure eskerronik eta ongiatorririk biotzetikoe-eskeñi gabe. Filosofariak ere ba-ditugu gaiñera. Oraitxe bai tajutuko dugula jakintza sail guztietan gure Euskera maitea.

Agiteak ditugula lekuko zintzo, ba-dira gure euskera goi-mailletara jaso nairik dabiltsan gaste lerdenak!

Ugari bagenitu! Guk, mota guzietako apaizgaiok, darabilzki-
gun lumak atsedena-aldirik ez balute euskera-lantze arlo
ontan, erdal-kutsuzko nagiak ez lirake guzaz nausituko! Zo-
rionak, bada, idazle berrioi, eta ongiatorririk sutsuena! Eus-
kera lantzerekin bat beste bide erlantsurik urratzen bait-
goaz: gure arteko batasuna!

Goraxeago aitatua zeaztera nator: "Estali berriz,
mami berris..." Idatzi dut. Zuen eskuetara ordukoze oartu-
ko zerate noski esate onen egiaz. Izan ere, beste edozein
gauza bezela gure YAKIN ere "zer" bat besterik ez dugu, e-
ta "zer"aren gorabera guzietara makurtua dakusgu. Eta oeta-
tik ere izan ditugu: gauza guziak "gora" dijoazela-ta, YAKIN
gure aldizkariari ezin izan diogu oztopo-arri latz au zo-
koratu, "zer" au ere arrenta baitda olako gauzetan! Gares-
tiago ipiñi digute argitaratze-lana, eta guk orriak gutxia-
gotzea beste erremediorik ez dugu izan. Baña mamiari gagoz-
kiolarik, mami aukeratuena azaltzen saiatu gera onako ontan.
Izan ere gure patrikaek berotik gutxi daukate... "gure ibai-
errekak urre-ale gutxi dituzte". Dana dala, azti errukitsu-
ren bat ba-dauka gure YAKIN-en bere babesean artzen duana!

A g u r.

TEOLOGI-
FILOSOFI

SAILLA

AITA SANTUAREN ITZA

Pazkoetako Deia (Jorraillaren 17'an)

MUNDU BARRIAREN BILLA

Aita Santuaren biotza negar maikoz bustirik dagoela dirudi, mundua gau illun, atxekabez beterikoan murgildurik dagoela ikusirik. "Bein baño geiagotan ager arazo dizuegu, aberri eta lurralde guztietako gizonak nastu eta nastzaille dan mundu batean bizitzera bear-tuak daudela, bildurri eta noruntz jo ez dakitela", dio Pazkoetan mundu guziko kristauei zuzendutako dei aipagarrian.

"Zainetan odola aitzen dijoakion soin erdoitu eta ustel bat dirudi munduak; gizon, talde, aberriak, elkartuak bizi ordez sakabanaturik bizi naiago bai dute. Eta elkartzen bada, batak besteari gorroto dio, mundik okerra egin dabiliz ausi arterañoeko burruka dabilkite".

Lurra ekaitzpean bai illun!! "...Izaki nastuari itzaropenik gabeko azken ordua aldu zaiola dirudi. Izarrak argirik ez diote bialtzen nora joan ez dakin gizonari..., landare, lore, bizidun oro erio-loan eroririk daude... Birtartean sorcoetako lu sokorrek itzaropenez beterik pil pil dagite; lurpeko aziak egon eziñean daude; txoriak ere goietara igoko lirakelakoan, beren egoak geldi dituzte; ezertxo ere ez da igitzen. Bañan, sortaldera, argi-izpi bat dager..." Bizitza, bizitz berri bat ekarriko duan argi-izpia...

Mundua ere, lurra-antzo, ekaitzpean dagoela, dasaigu Aita Santuak; eta gau illun, goibel onen aurrean bere biotza negarti dago. Badaki, ordea, gauak eguna ekartzen digun bezela, munduaren gau au ere argi izpiak joko dutela eta argituko.

"Bañan munduaren gau onen ondoan, goiz-argi, eguzkiak iñoiz baño geiago berotuko duan egun berri bat agiri-agirian da..."

Izan ere, egunetik egunera aldaketa aundi eta arrigarriagoak ikusten ari gera lan soro guztietan, gizonaren on aundienerako eratsen dituztelarik. Munduak orrela badarrai, gaur asmatuak urte gutxietara atze-usaia izango du. Au al degu ordea, aldaketa edo aurrerapen au, munduari argi egingo diona? Asko eta asko baidira 1956'ko eguberri deian zionez, teknika jainkotzat artzen dutenak. Eta eguberri deian bezela, pazkoetako dei ontan ere, argi argi digu ez degula teknika, aurrerapena, mundua antzaldatu, berritu dezakena. "Askoek ikusten eta aitortzen ere dute, Jesus giltzapean sartu, sendietatik urrutiratu, jakintza eta gizartetik aldendu degulako, munduko gau illun au gainera etorri zaigula; erria aurka jaiki zaiolako; itzik gabe, illik utzi dutelako".

Aita Santuak bere gain dabilkin egitekorik nagusiena au da bai, zifnez: Kristo, gizonen bizitz osoan sartu arazi, sendietan, lantegietan, jolastokietan, jakintzan, lagunartean, erri eta aberrietan, its batean edonun..." Go-rroto ordez maitasuna, guda ordes, pakea jarriaz...

Ori iristearren eta ikusirik aldaketa, aurrerapen arrigarri auk dirako edo, mundu zabalean gezur ugari zabaldu dirala, besteei erakustea bere gain dutenak askotan aurrerapen oni buruz ziur zer iritzi ez dakitela nabaiturik... bakoitzari, auk guztiak aurrean izanik, bere egitekoa, bere eginkizuna nola bete erakusten ari da atertu gabe; arriskuko eta okerbideetatik aldendu, bide zuzenetik eman.

Itz batean, lurra antzaldatu nai du. Mundu berri bat egin nai luke eta gai oni buruz, zenbat eta zenbat lan egin digun XII P10k, zenbat erakutsi eder, zenbat itzaldi, auk, zuzenbide, emanik dizkigun guztiok badakigu. Bere itz goxo, maitakor oiek entzuteko zoriona izan dutenak asko eta asko izan dira: Apaizak, irakasleak, ikasle, gazte eta abar... Eta sail bakoitzari mundu berri lantze ontan ze arlo, ze egiteko izango duen argikiro agertzen die. Mundu berri bat nai du, bañan zarraren erdian, ogeigarren eun-ki erdian; arrek duan ona ezagutu eta arturik; txarrik, berriz, badu, zuzendu eta ondurik. Kristori, berari bakarrik dagokion, eta gizonak, txoroak! teknikari eman dion tokia, eman. Kristo sarrerazi, ez elizetan bakarrik, bañan baita ere kale, enparantz, lantegi, ikastetxe, elkarte eta sendie-

tan...

Eta Aita Santu berak, Aita Lombardiri, Epaila-
ren 12 an idatzitako eskutitzan dionez "Mundu-Berri orren
alde lan egiteko, ontze ori apiz eta gotzaintzara deituak
dauden kristauek asi bear duala agirian da... Apaiz e-
do Eleizak edotariko gotzaintzara deitu ditun kristauen
donetasunak lortu dezaioke sendiari osotasuna; lantegieta-
ra zintzotasuna eman eta lagunartera zuzentasun geiago.

Bai egi aundia ziola idazlari bikain eta sinis-
men sakoneko izan zan Louis Veillot'ek "kristauak otoitz-
aren bidez, mundua gaizkatu dezaketela" zionean, eroririk
zegen illunpetik lurra argitaratu.

Munduaren berritze ontan kristauak ain garrantzi
aundia badu, apaizarena aundiagoa dala esan bearrik ez de-
gu, apaiza berez, ortarako jarria baida, gizonak Jaunagana
emateko. Bañan, bere lan, bere egiteko ori, nola bete gaur,
XX eunkian? Eta bere lan ontan, nai ta nai- ez, billatuko di-
tuzten eragozpideak nola garaitu?

Benetan aipagarria, apaizgai guztiok irakurririk,
oso gogoan artu bear gendukena da, Aita Santuak gai oni bu-
ruz Barcelona Barrutiko Apaiz-ikastetxesri egindako itzal-
dia, zuzenbiderik ederrenak badamaizkigu.

Barcelonako Apaizeri (1957 Garagarriaren 15'an)

Ara zer dien: "Iru gogamen auek nai nuke zuek
zuek buruan erabiltzea:

1) Zuzena bezelako Apaiz-Ikastetxeak bear bearrezko-
ak dituzute; Apaiz gazteak, alditxo batean beintzet, egun
gutxi barru bere gain artuko duten lanera gertutzeko:

a) Ori eskatzen du ogeigarren eunkiak - jakin-
miña, jakintza berarekin enaturik - banaka batzuek izango
baidira ikasien artetik ez ezik, erri xearen erdian, bere
artzai eta zuzendari diraneri orain amar, ogei urte eska-
tzen etzietena, eskatuko dietena.

b) Ori eskatzen du teknika bidean ikusi degun al-
daketak eta apostoladua egiteko eran sortu diran bereizta-
sunak - egiazko jakintza biurtzerano, ez urruti -. Arretaz
ibilli emen Jainkoarren, ez itxu itxuan eta orainarte baño
gertutu, zuen lanak on geiago ekarri dezan...

k) Eta azkenik, bai ta ere ikastaroa amaitu ondoren gogogaietarako alditxo bat ematera beartuak izateak. Izan ere, bizi gorriaren aurrean arkitzean, len baño askoz ere obeki ulertu baidu lurrari itsatsia dagon mundu au, goi arnasez erein bear litzakela. Ortarako, berriz, astirik ez dio utziko eguneroko geldi ezin egon txoro onek...

2) Inetxo maiteak: apaiz gazteen betiko ametsa vuxe baida: toki guztietan aurrera atera, zer izango dan jakin gabe ere berrikeriren bat amestu batez ere gizarteko gaietan". Bañan iru gauza auk gogoan izateko esaten die:

a) Apaizarentzat, aurrerapena ez dala noski erakutsi berriak asmatzea, banan berri Onak ekartzen diskigun aspaldiko eta betiko aiek bear bezela erabilitzea.

b) Ori iritxiko duala ez noski itxu itxuan eta azkar; bere egiteko guztietan eleiz amagaitura duanez, berrezko da zurtasun eta neurria jarriaz baño.

k) Eta aldaketa onen aurrean geldi edo lasai egoterik ez duala, ez; bañan ez ta ere erabat beste aldera jo, apaizaren egiteko berezia asturik...

3) Banan arazo auk dirala-ta, - naiz gaurko egunean garrantzi aundia artu, naiz Elizak arazo auetan atzera orde, aurrera egin badu ere susarki -, ez luteke aztu bear apaizak:

a) apaizaren egitekorik nagusiena gizonen biotzak lortzea dala, Kristoren apaizgintza lurrean jarraitzea, Aitaren aintza... eta bere zainpean ditun ardi garceeri betiko zoriona iristea, bizitz ontako lanak beste bizitzako saria emango digutenak dirala erakutsiaz.

b) Gaurko egunez gizarteko bizitzak dakarzkigun goraberak konpontzeko kristauak ez dula iñorekin muturjeka asi bearrik, elkar artean betiko arauen argipean pakebide bat billatzen leyatu baizik.

k) maitasuna, zuzentasuna baño geiago eratzea dala eta zuzendasunak al ez dezakena, maitasunak al izango duala."

Iñork ez du noski esango garrantzi aundirik es duala guretzat Aita Santuak Barcelonako barrutike apaizari esanak. Garrantzi aundikoa, eta gogoan ongi artu bearrekoa! Ori egin ez delako, or ikusten ditugu nunai apaiz ugari,

amabi, amairuren bat urte seminarioetan ikasten egiñik, errietara joan bezain laster idazti guztiak itxi eta auspean uzten dituztenak; or ikusten ditugu, nunai apaiz ugari bear bezela gertuak ez diranak; apostoladuko era berrietaz ezer edo oso gutxi dakitenak. Beti aurrera joan nai izaten dute apaiz gazteak, bidean billatuko dituzten arriskuerei begiratzeke, itxu itxuan, eta ez Aita Santuak eskatzen digun arreta eta zurtasunekin; eta orregatik gertatzen dira gertatzen diranak. Gogora ekar Frantzian apaiz nekazariet gertatua: usterik onenean sartu ziran aiek ere nekazari artean; nekazari biurtu ziran, sinisgabeaiek Jainkoa alde batera utzirik bizi ziran aiek Jaunaganatzera. Asmoa ederra zan, ederragorik ezin; bañan bear izango zuten zurtasun, zentzutasuna izan ote zuten? Lan asko egin zuten, lan bikaña, eta nere ustez kalte zerbait Elizari egin bazioten ere, on askoz ere geiago egin ziotela esan bearrik ez da. Beti go-goan izan bear degu Aita Santu berak, Eleiz artzai Felten agurgarriari, epaillaren 25'eko eskutitz ederrean idatzi ziona: "Guztiei Berri Ona zabaldu eta naigabe guztietan laguntzeko asmoa toki guztietara joatera bultzatzen duan zaletasun berak, arriskuan jartzten du noizean bein apaiza: bere esanetan okertzeko arriskuan, eta bere bizikeran bear bezela ez jokatzeko arriskuan... apaizarentzat lenengo eta bear bearrezko eginkizuna bere donekuntza dala aztuazirik"

Aita Santua eta irakasleak.

Teknika bidean ikusi degun aurrerapen onek jakintza sorotan ere berrikeri ugari sartzeko arriskuan jartzten gaitu. Izan ere, bai txorua gure adimena! Egiaren atzetik beti ibilli oi da, eta egia lortu arte ez da lasaitzen. Bañan askotan egiaren jabe dala uste badu ere, azalean aztertu dualako eta ez sakonki edo baita ere berari atsegin zaiolako bakarrik edo orrelako beste zerbait dalata, bere ustez egia dan ori gezur izatea gertatzen zaio. Egia nun eskuratu?, dio ordun kezkaarenpean jakinzaleak. Apaiz irakasle batentzat erantzuna ez da zalla; egia Kristo degula, eta berak esana, "Eleizaren erakutsiak dirala egi-tzat artu bear ditugunak, - erakutsi auekin bat ez dan oro, gezur dala jakin. Bañan berrikeriak ere askotan, eta batez ere gaurko egunean, bultzarazten du eta itxutzen apaiz be-

ra ere - beti gogoan izan bear dugu zein aldakorra dan gure adimena-.Berrikeri onen kutsua denak izan dezakete filosofi soroan,bañan batzuek besteak baño geiago. Orregatik, alegiñak egin ditu Eleiz Amak filosofi gaiak sakonki erabilli eta kutsu ori al gutxienik zuten irakasle aundien erakutsiak jarraitzeko eskoletan,erakutsi auek Eleizak ontzat artu eta aintzakotzat ezagutu ondoren noski.Ori egin zun XIII Leon Aita Santuak eskola guztietan Tomas Deunaren erakutsiak jarraitzeko naia agertu eta agintzen zuanean; ori egin dute beste Aita Santuak XII Pick beti.Begira Dell' Aqua jaun agurgarriaren bitartez Italiko Seminarioetan filosofi irakasleen bilgurari idatzitako eskutitzaren berri laburki:

Italiko Filosofi irakasleei.Eskutitza (9-4-57)

XIII Leonek eskoletan filosofi gaietan Tomas deunari jarraitzeko naia agertu eta agindu zuanetik (AETerni Patris,Idazkia.1879-8-9'n) kristau filosofia berritzeko asmoak eraginda,egin diran surrerapenak aipatu eta Apaiz bati egiazko filosofi gaietan ikasia izatea bear be-arrenkoa zaiola,eta filosofiak erakutsia aztea edo ajolik ez izateak apaiza zenbat arriskueta jarri deiken agertu ondoren,ara zer dion:"Gizon askoren adimenetan zalantza eta kezka zabaltzen duten bururakizun bolada oriei eta berrikerien atzetik dabiltzenei,egia berak duala ziur eta lasai esan dezaken aspaldiko kristau filosofia aurrean jarri bear genieke. Izan ere,lu illun onentzat apaizak argi bizi izan ditezen,gotzaintz lanari ekin eta kristau jakintzaren oñarriak arkitzeko ifioiz baño beartuagoak daude egia bere duan filosofian murgiltzera;onek agerrerazten digu zein garrantzi eta begirune aundikoa degun irakasleen egitekoa,biarko apaizek lantzean".

Aita Santua eta ikasleak.

Gazteak dirala,eta batez ere ikasleak,Aita Santuaren begi ninietan daudenak,zenbat itzaldi egin,zenbat erakutsi eder eman dizkien ikustea naiko da.Bere biotza agiri agirian jartzen die;ezer izaturik ez du gazteentzat; aolku bakañenak ere aientzat dituzute. Gazteen biotza erabat aztertu edo miatu nai izaten du;bere estuasun,asmo,neke,illunaldien berri izan eta aolku berexienak ematearren.

Azkeneko lau illabete auetan, baiditugu Irrati-dei bat Ameriketako Erri Elkartuko katoliko-eskoletarako ikasleei (6-3-57); itzaldia Erromako 50.000 ikasleei (24-3-57); Madriderako ikastetxe nagusian Legezitia ikasten ari diranei (1-4-57); Agur itzak, Afrika eta Antillaske ikastetxe nagusietako ikasletalde bati (23-4-57), eta beste bat edo beste ere bai. Lendabizi aipatutako iruak azaldu nai nituzke laburki, iru auek baiditugu garrantzi sundiensekoak.

Estados Unidosko Ikasle Katolikei. Irrati-deia (6-3-57)

Pozgarri dala beretzat, dio, Ameriketako gazteei mintzatzea. "...Berriz ere Estados Unidosko seme kutunei mintzo nairik ara ni emen; berriz ere zuen artean alditxo bat egin asmo det, nere itza eta gogoia ore zuenak dituzutela une onetan jakin dezazuten... Euetako batzuek sendalari izango dira, bear bada, egunen batean; auek legegizon; aiek artuemanetara joko dute. Zuen arteko askoere apaiz izango dirala uste det. Bai apaiz bearra dula Eleizak, Kristok asi zuan lanari jarraitzeko!" Eta neskatzari zuzenduaz: "Zuetako batzuek ere lekaime izango zeratenoski. Dei aundiagorik bai ote?"

"Dana dala, zuen gerokoari buruz, nai dezuten bides artuko badezute ere Jainkoaren seme zeratela beti guztiok gogoan artu bearko dezute, batakoaren bitartez; eta jakina, zuek maite zinustelako Gurutzean il eta betiraunde osoan zuek berarekin euki nai izan zuan Jesus maitatzen jarrai bear dezute.

Zer ez ote zenuteke emango Jesus onen argazki egiazko bat izatekotan, bidalien antzera ezagutzeko? "Jesus zer izan zan adieraztea emateko ~~eta~~ itz ~~mitza~~ dirala esaten die, Kepa deunari artuaz: "Transiit benefaciendo, on egiñez igaro zan". "Argazki obeagorik bai ote? Kepa deunak, Jesusi buruz geienik gogoratzen zuana auxe zan: Onegiñez igaro zan". Gizataldeak edonundik zetozkion. "Gizatalde aundiak, dio Mateo deunak, zihoazkion elbarritu, itxu, gorrak bere onetan surkezten zizkiotelarik. Eta Berak guztiak sendatzen zitun" (Mt. 21, 14).

"Egun batean, illobiratzera seramakiten alargun baten seme bakarra, amari itsuli zion bizirik, esanik: "Etza-

zu negarrrik egin". Ama baten negarrak bere biotza ukitu da eta amari aurkeztu dio illotzik zegoan semea piztuta... Poz artzen du legenardunak bere soñekoa ikutzera urbiltzen zaizkionean. Aien zaurien gañean eskua ezarririk sendatuak gelditzen ziran. Kepa deunak, ofutzik eta neke neke eginda, gaxe eta bearrean zeuden gizonei on egiten aruntz onuntz zebillela, dasaigu". Kristau zintzo baten egitekerik aundiena Jesusen bideari jarraitzea, Jesusen antzeko izan eta gure eginkizunetan agertzea dala gogora ekarri nairik... "Jesussek burututako arrigarrikeri eta alatzak iñork ez dizkizute eskatuko seme maiteak; baña ni, eta zuen guraso, irakasleak ziur daude zuen artean, zuen etxe, ikastetxe eta jolas-tokietan on egiten igaroko zeratela."

"Garai ontantxe, gotzai jaunak... zuen laguntza bearrean dituzute, miñez dauden eta bizi al izan eta berotzeko ezátxe, ez janari, ez sendagairik, ez soñekorik duten lurbira osoko gizon, emakume, aurrei on aundia egiteko. Zer eskeñiko dezute zuek aien laguntzarako?" Lendabizi, zuen otoitzak eskeñi, - garizuma guztian otoitz berexiak -, Jau-nari eskatuaz aberri gustiei, Berari eta lagunurkoeri buruz maitasun sutsuagoa izaten lagunduko dien pake eta aurrerapena eman dezaiela.

"Eta gero, garizuma ontan, zueri gogozko zaizkizuten gauz txiki batzuek utzi edo eskeñiko dituzute, noski. Eta orrela biltzen dituzutenak zuek baño estuago, zuek aibat ardura eta atsegin gabe bizi diran aurtxoeri eskeintzen badizkiezute, zuen biotzak postuko dira... Orduan bai, zuen lagunik aundiena eta ain maite maite zaituten Jesus orrek Ameriketako eskoletara begiratu bat emanik, on egitea nai izan eta benetan bere nala egi biurtzen duten aiek bakarrik bere semetzat artu eta esagutuko ditu. Eta, zuek ez al dezute Aita Santuaren alde otoitz egingo?" Au bai dala, biotzetik biotzera itz egitea, benetan maitekiro; aurraren biotzaren izkutu guziak ongi esagutzea. Auek irakurtzean Jesus ber bere aurrei izketan ari dala dirudit.

Erronako 50,000 ikasleei. Itzaldia (24-3-57)

"Gastedi sail alaiak gañezka jarri beste bein Eleiz nagusi auzasiko edo ez, ikeras Eleiz onen orma gustiak dardarrean jartzen duan udaberria dirudit nere aurrean bes-

te bein... Erromako eskola txikitako ainbeste gazte ikus-
tean,nere biotza zerk txoratzen duan geienik zorion une au-
etan esaterik ez det; ain maite zaituten guztion aita one-
kin itz egitera etortzeko zuek jarri dezuten gogo,ardura
guztien berri izan baidet. Auek denak nola eskertu ez da-
kit..."

Gaztedi ase eziña.

Egin dituzten lan eta aurrerapen guztiak txalotu
ondoren,"...aita batek bezela zuen estuasunen berri artzen
nuan bitartean nabaitu det berebat bide zuzenetik zerbait
okertu zeratela eta ezin eramana zerbaitek artu zaitutela.
Bide zuzenetik okertu zerate,jakintza soroko aurrerapena
eta au dalako teknikan aldaketa ikusten badezute alde bate-
tik,bestetik ikusten baidezute asko eta asko goibel daudela
gaur gertatzen dana ikusirik eta biar gerta deikena ez da-
kitelako.Ezin eramana berriz zuen bizitz osoa betetzen du,
eskola ere bai;ezin eramana irakasleeri buruz,zuek nai di-
tuzuten bezelakoak ez diralako;ezin eramana ere ikasteko e-
rari buruz,ez bazaizkizute eguneko iruditzen".

Bañan;zerगतिक zaudete zuek estu? "Mundua nola
dijoan ikusteak naigabetzen zaitute eta mundu berri bat a-
mets dezute",erantzuten die Aita Santuak. "Eta gazte asko
eta sko badira,zer egin ez dakitenak berritze au irixteko
eta bere egiñal guztiak alperrikako izango dirala uste du-
tenak,beste asko ere badira itxaropenez beterik daudenak
geroko orri buruz.Auen artekoak zerate zuek seme kutunok;
gaztedi errea (mindua),zeratela suetaz ez dago esaterik
gaztedi bizkor eta beroa,Jesusek lurrera skarri zuan sus
zabaltzeko gertua baño.Zuen ements ori benetan egi biurtu
dedin ordea,ikasle bezela bete bearreko guztiak,arreta aun-
diz bete bearko dituzute oraintxetik.Iru auek batez ere:
ikasi bearra,bear bezela ikasi,bear dan guztia ikasi.

a) Ikasi bearra:

"Gazteen adimenak esnatzen diran bezin
laster,guztien berri jakin nai izaten du,ta izakiak berriz,
bere arrigarrikeri ta izkutuak begien aurrean jartzen:bizi-
tza zer?,gizonaren eginkizunak,zuen ametsak,zertara goaz?
Ze bide artu? Nola iritxi? Argi bizi eta erantzun egokiaren
zai dauden galderak,auek guztiak.ikasi,beraz,lan asko egin
bearrean bazerate ere; ikasi bearrekotik ta irakasleak esa-
ten dizuenetik ez alden du.Ikastekoan zabar eta alper izatea

zeok saltzea izango litzake, eta gaita ere zuen gurasoak, zuek ikastearren lan neke asko jasan bearco baizituten bear bada; aberria ere bai, gizon ikasi, jakintsu, legegizonen bearra baidu".

b) Bear bezela ikasi:

1) "Ikasi benetan. Bañan ez uste izan inoiz, ikasteak garrantzi aundia duala, lester bearrean izango zeratelako bakarrik. Ez dakizute oraindik bizitzan zer izango zeraten, ze bidea aukeratuko dezuten... Idazti bat irikitzean, ikaskai bat astean, azterketa aurrean, etzenuteke, zertarako det? galdetu bear. Ez esan: Ingeniero izan nai det; zertarako det filosofia? Lege gizon izango naiz; zertarako det bada fisika? Sendagille izan bear, eta zertarako det ertia? Gai guztietatik zerbait jakitea beti ongi etortzen dala eta askotan bat ikasia eukitzeak, bestea erre-xago ulertzen lagunduko digula jakinki...

2) "Dena buruz ez ikastea. Ez degu beñere uste izan bear benetan ikasteko zenbat eta gai ugariago ikasi ordun eta obeago dala. Ez dira gauz geiegi bear, bearrezko ta egoki zaizkigunak ongi ikasiak baño; bear bezela ulertuak eta bear ainbat sakonduak. Jakintzak sortu dun oro eta zuen eskoletako maietara eltzen diran idaztiak oro ikastea gizonak ez dezaken zerbait egitea izango litzake. Au egi egi dezute eta kaltegarri gaitnera".

3) "Zuen lanak batu eta sakondu. Gazteak askotan erortzen diran beste arrisku bat ere bada: irakasle ta ikasgaiak gertutzeko ardura dutenen laguntza- ren bearrean izango dira ortik igesi egiteko.

Eskolan dabillanak ongi daki gauza asko naasian ikastea baño okerragorik ez dala: gauza asko eta batak bestearekin ikustekorik gabe, askotan. Lanak batu eta sakondu al izatera iritxi bear luke adimenak, jakintza gaietan benetan lan egiñik. Ikasleak sinismen gaiak alde batera uztea gertatzen da; beste gaietan ikasle diranak ere begi okerrez begiratzen dituzte". Sinismen gaiak alde batera uzteak zenbat kalte ekarri deizken esaten du gero, eta zein ohea izango litzaken askoz ere gai guztiak bear bezela erakustea. "Ikasgaietan nai genduken batasun ori, "corpus doctrinae" onen buru Kristo bera jarriko bagendu iritxiko litzake. "Egia ni naiz" zion bein batean (Jon 14,6). Izakia ikasten ari zeratenean gauzak oro berak egiñak dirala eta egindako-

rik ez dala berak egiña ez duanik". Eta beste gai guztietan ere berebat egin".

k) Bear dan guztia ikasi:

"Izakia ikastetik asi, lendabizi. "Izakiak bere edertasun eta txorakizunen bidez, gaurko gaztedia bereganatzea bearrezko degu. Gora zuen begiak zeru goi urdiñeko izarretaraño, bizi zeraten lur onen edertasunak arretaz aztertu... eta ikusirik arrituta geldituko zerate zein errex dan izaki guztien Jainko egillea ikustea izarretan...

"Gero, jakintza guztien oñarri degun filosofi gai-
etara jo. Egia esan, askotan gertatzen dana dana da, ain jator eta bearrezko gaia izanik, oker dijoazten adimen eta biozga-
beko maixuen gezur sail bat erakusten dala filosofian, egia alde batera utzirik. "Egia zer? Eta mundua? Ezagutzerik bai ote? Jainkerik bai al da? Jainkoak munduarekin zer ikustetik du? eta gizonarekin? zer dalata bizi? eriotza zer?... Gal-
dera guzti auei erantzun egokia eman al izan bear zenuteke guztiok. Galdera guzti auei erantzun al izateko, filosofi guztietan lenengo eta maixu dan kristau filosofian murgil-
du.

"Eta azkemik, kristau guztiak, bañan batez ere ikasten ari diranak, alen neurrian gogo gaitan asko ikasiak izan bear lukete. Azkeneko izango baizlitzake beste gai guztietan aurreratzen ari zeraten bitartean, sinismen gaitan aurtzaroan ikasitakorekin gelditzea".

Eta bukatzen du esanaz: "Egiaren jabe izatera irixten zeratenean, egi ori zuen bizi ta eginkizunen arau biurtu ezazute. Azi zaitetze Kristogan "Maitasunez egiari itsatsirik, buru degun Kristogan egunetik egunera aziaz" (Ep. 4, 15). "Egia baño gezurra meiteago izan duan mundu onen orde, mundu berri bat amesten dezute. Mundu berri onen buru Jesus bera izan bear du. Nai al diguzute beraz, beiritze ontan zuen laguntza eskeñi? Kristo izango da garaille; Beragatik burruka egin eta Beragatik nekerik jasan nai al dezute? Gaztedi aul eta ergela ez izan; gaztedi bizi, beroa baizik. Piztu eta zabaldu Jesusek lurrera ekarri zigun sua".

(1-4-57) Legeistia ikasten ari diran Madrideko ikasle-
talde bati. Aolkua.

Its gutxietan au dasaie:"...Zuentzat eta zuen inguruko guztientzat ere ain garrantzi aundikoak diran egun auetan,garai,gauz eta gertakizunen berri artu eta azkarregi gabe,geldi aztertu bear zenituzteke,ulertu al izateko zuen bizitzan,gero damutuko zeraten zerbaiti ekin baño len,argien argi dan Jaunari apalki otoitzatxo bat zuzendu ezkerro ez litzake noski alperrik galdua izango. Garai auetan batez ere...biarko mundu berri ori eraikitze ortan zuen laguntzak ikusteko aundia izango du,lan ortan zuen sua eta atsegin sarieza jartzan badakizute,ikasí dezutenetik opa litzaken arnaria ateratsen bazenekite.

"Azkenik,zuen gazte aroko azken egunetan zaude- ten ezkerro,on litzazueke noski,zuen igaro urteeri begira- tu bat ematea; garai ortan,besteeri begiratzeko zuen buru- aren onerako lanean ari izan baizerate,zeok lantzen.Lan au iñoiz etzenuteke alde batera utzi bear,erabat amaitua bazenute bezela;era berean,zuen berezitasuneko ikasteari jarrai egin bear zenieke,idazki,aldizkingi,itzaldi edo beste argitalpen guztien bidez;bañan zuen buru lantze ofek berekin dituan lanak ez zaitzatela berriz izutu,eta egune- tik egunera aurreratuz joan... Onbide guztien lenen eta buru zuzenbidea baldin badegu,aintziñakoak aitor zegiten- ez (Cic. De Officiis 3,6).Bizitz osoan bere alde lan egi- teko itz eman dezutenok,zenbat on egin dezakezuten agiri- an da.Orduan,Suarez,Victoria,...Sotok ain pizturik euki zuten zuzi onen argia ez daiñoiz ere itzaliko..."

o o o

Mundua gaizki dijoakigu,illunpean,gezurpean,ero- ria baidegu eta mundu erori au altxa egin bear degu,illun- petik argitaratu,gezurpetik egibidera ekarri.Itz batean, mundu berri bat egin.Auek dira,nabarmenki ikusten degunez aurreko itzaldi,eskutitz,aolku auetan Aita Santuak etenga- be ibiltzen dituan gogamenak.Uztaren 9'an Alosterriko (Belgika) ikasle-talde bati ere,dasaio:"ikastaldi nagusi- etara igarotzera zoazte;gogoan izan bear dezute beraz, kristau ikasle gazte izanik,zuen gain betebear aundiak i- zango dituzutela,Eleizak asko eskatuko baidizue.Uzkurkeriz eta zerekoitasunez orain darabilzkizuten elburuak indargal- tzea ez luke nai Eleizak.Bizitzan emango zaizkizuten goi tokietan,egi billa dabiltzenentzat argi izango zerate,zuen

laguntza eske etorriko diran miñez daudenentzat, kemen eta indar".

Bañan batez ere apaizak!! Guk izan bear degu benetan argi, illunpean eta gezurpean eroririk dauden gizonentzat; gatz, lurrarentzat, guregatik esana baidago: "lurrarentzat gatz zerate zuek; eta gatz zerate ezkerok zerk gazi-tu?" eta geroxeago berriz "Giza argi zerate zuek... giza aurrean dirdir bego zuen argia eta zuen egin onak ikusiko ditute eta zuen goiko Aita goretsiko" (Mat. 5, 13). Gatz bagera beraz, ez gaitezen arren, gezatu; argi bagera, dirdir bego gure argia, ez lakaripean jartzen dan zuzi piztua, gure egin onak ikusirik goiko Jauna goretsi dezaten gizonak. Gure lenengo eginkizu, gure donekuntza degu. Egia da apaizak egunatik egunera oztopo geiago billatzen ditula gizonak Jaunaganatzeko bere lan ontan, oituren zabarkeria, aurrerapen arrigarri onek ekarerazi digun aldaketa dalako edo, Eleiz artzai Felten agurgarriak bidalitako eskutitz ortan dionez. Bañan, zenbat eta eragozpide aundiagoak gure lan ortanarkitu, orduan eta gogo, kemen geiagorekin lanari ekin bear genioke, iñoiz baño gure laguntzaren bear aundiagoan baidago mundua. Toki guztietara joatera bultzatzen gaitun gure zaletasun onek arrixkuan jarriko gaitula Eleiz Artzai berari esan ondoren, dasaigu: "Bañan aitzekirik izango ote luke, batzuen negar eta besteen esamesei begiratuaz, bide onera ekarrarazi bear degun mundu au, dan bezela ikusi, eta ainbeste gizon aurrean arrixkuan izanik, nere antzera, bere biotzean kezka edo naigaberik nabaituko el lukenak? "Ez, noski, ez; aitzakirik ez luke. Gaxo aukerori balitez, galpen onen errudun bera bakarrik litzake. Eragozpide aukeratzeko barruko bizitz orri su geiago jarri bearko lioke, jainkozalego izan. Eta batez ere ez astu idatzita dagola: "Done izan zaitezte; ni, zuen Jainkoa, done bainaz" (Lev. 19, 2). Santutasun ori irixteko, ez astu otoitza: "Orate magis magisque et instantius orate". "Egin otoitza; geroz ta geiago egin, etengabe egin", nere "Mentis Nostrae" itzaldian (A. A. S. 42, 667 or.) nere kezka eta miñaren berri eman bainizuten esanez: "nere seme batzuek lanean jarri zuten suarekin, apaiz baten lenengo egitekoa bere donekuntza zala astu baizuten. Auker guztiak gogoan arturik, "kendu dezagun illobitik egia eta ona ixten duten arria; Jesusen berpiztea bearrezko bai-zaigu, eriotzari bere indarra kentzeko" (Pazkoetako deia).

Jesusek gizonen biotzetatik errua kendu eta bere eskerra jarri bear du. Sendietara maitasuna itzuli, orduan lantegi, uri, aberri, gorroto asarreak erdiburik dituan lurralde guztietan, "gaua egun argi biurtuko da. Nox sicut dies illuminabitur". Eta orduan, guda ordez, pakea izango degu. (Toki berean).

Jarrai ditzagun Aita Santuaren esan, aolku auek, eta berarekin Jaunari dei egin, esanez: "Atoz, Jesus Jauna". Zenbat biotz dituzun zure zai! Biotzen bizi eta jabe Zu bakarrik izango zeran egun ori zenbatek amesten duten! Atoz, bada, Jesus Jauna!!!

Balardi'tar Ion

Lazkai'ko beneditarra.

J. LECLERCQ'EN

LIBURU BATI BURUZ

(Amayera)

4. Gogoan zer elburu darabilgun eta noiz zer egin.

Gaurko zillegizti edo moralak dituen okerrak erakusteko lanari darraikiola, Lovaina'ko irakasle ospetsu onek bi sail, bi oin bezela, berextan ditu: gure eñeko giza-moral utsak esaten diguna jartzen du oin batean; bestean, gure biziari kristau-legeak ematen dion zuzenbidea, joera berezia.

"Eguneroko bizitzari buruz, dio berak, egikera azko dira gizaki guztiak onartzen dituztenak; olako egikerak giza-legetzat, giza-moralizat artu genitzake; moral orri aspaldidanik jatorrizkoa, berezkoa derizkiogu. Adibidez: neurritasun-legea moral-mueta guztietan berdiña degu, berdin gertatzen da iñoren bizi ta ondasunari kalterik ez egiteko legearekin eta olakoekin ere. Olako eginbideei buruz eskola guztiak iritzi bateko daude: orretxegatikxe, askok moral-eskola oiek alperrikakotzat daukate, esanetan banandurik agertuarren, izatez eta egitez bat jotzen dutelako".

Baña onetzaz gaiñera, "egikun bakoitzerako ditugun arau edo legeen ondoan, baditugu gaiñera gure biziari zuzenbide berezia emateko argi batzuek ere, garrantzi aunkoak berak, eta bizi osoari joera berri bat ematen diotenak". "Neurritasunari buruz, kristaua, musulmana ta komunista dana ere bat etorri litezke beste estoiko edo epikureo

dan batekin;berdin,iñoren biziari zor diogun begiramenari buruz ere...;baña ortik ez atera giza-legea edo morala,eskola edo alderdi bakoitz oien gogotan eta iritzian,bat danik;ori uste lukena oker legoke,ezpaitago ortan bakarrik moralaren guna".Gun au bizi osoari ematen dion zuzenbide ta joeran datza.

"Gizonak zer elburu darabillan gogoan,zer egiteko artu bear duan berebiziko nagusienekotzat,orrek ematen dio biziari gaingañeko zuzenbidea ta joera berezia.Zuzenbide au kristau-legean zerak erakusten digu? Jainkoaren asmoak,munduaren berrerospenak,Jainkoaren erreinua edo eginbidea jaso-bearrak,egiteko ontan lankide izateko kristauak izan duan deiak,lan au bakoitzak bere baitan asten duela.Mundu osoak begipean artu al izateko goietan jartzen gera orrela; badegu emen gizadi guztia gogo ta biotz berriztatzeko argibiderik naiko,gizonaren zintotasun ta urentasun guztiak erne ta azieraziz".Kristau-legeak gure ikusmen guztia aldaerazten duela esan genezake;dana barnean artzen duena da,osoz osozkoa,totalitarioa;kristau-legeak egin nai duen lana eztezakegu gogotan artu ta erabili,lan ortan lankide izateko gogo bizi beroaz nabaitu gaibe;ain da bera aundi ta ederrezgarria.Lan ori zer nolakoa dan antz eman ezkerok,nekerik aundienak bor dizkiogula berez ulertuko degu".

"Ori ola dalarik,nola diteke kristaurik geienak ain epel izatea? Bada erantzunik galdeoni emateko;ez uste,beintzat,irakutzi bat,argi ta garbi emana dalata,guztiak bere legera jartzeko naiko danik... Gertatzen dana da oraingo egunetako eskoletan kristau-legearen ikuspegi oiek,zuzenbide nagusi oiek,iya eztirala aipatzen...eta olako zuzenbideak izan bizia antzaldatzen dutenak egingibe bakoitzari,berez lengo-lengoa jarraituarren,bestelako izate bat,joera bat ematen diotenak... Gure moral-irakaskintzak sarritan,oraingo "mistika" diralakoan aldean,txepel eta ito ematen ba"du,ez beste inon orren sustrairik billatu. Oraingo "mistika" oiek,bai liberalismoak,bai sozialismoak,bai komunismoak eta bai modu guztietako fasismoak sua ta garra sortzen dute. Zergatik? Gizon bakoitza ez eze,gizadi osoa berriztatzeko ematen dituzten uste ta itxurakatik,bizia egunero ekarri oi dituen lor eta nekerik aipatzen

dutenean ere beren egitekoa ta jomuga iristeko lagungarritzat jartzen dituztela".

"Oraingo katolikoek ongieza nondik dator? Kristaulegea erakusten dizkigun zuzenbideak, argibide bereziak gotan ez artzetik eta agirian ez ipintzetik. Oker au zuzentzeko, iturburuetara jotzea naiko izango degu, Jesukristok ere ortan jarri baitzuen bere ardura ta ataza. Berak ere oraingo komunisten antzean jokatu zuen... Ebanjelioko irakaspenak zertara jotzen dute? Gogo berri bat erakustera, gure biziari joera berri bat ematera, eta ez egitada bakoitzean nola jokatu irakastera."

5. Oraingo zillegalitatea ez omen da gizonaren egarriaren asegarri.

Gaurko moral-ikasbidearen uts eta etenak aztertu bearrez, oraindik beste uts bat ere arkitzen dio Leclercq jaunak: egungo lei eta joraneei erantzuteko gauza ezta-koa.

"Gizonak, dio, zerbait aundi ta ederraren ondoan dabilta, zerbait ori zer dan ez non arkitu liteken ezta-ten arren. Zorion-naian agertzen da au geiegi; zorion ori non datzan nolabait usnatzen dute: alegia, bere izatearen elburua bete-betean iristean, beren izate orren lei ta ayok osoan asetzean; betetasun orren iruditze utzak gogoa txoratzen die, ta izatea, berriz, bizia zoragarri egingo lieke. Baña ura gabe daude; billa dabilta, ta irixteko, amaika erre-zeta eskintzen zayo, bai filosofoen zuur-itzetan, bai beste ainbat moral-eskoletan, bai politikako ta gizarteko leyaketa ta jokeretan, guztiak elkarren leyan, su ta gar, etengabe-ko burrukan sarturik diardutela".

"Kristianismoa burruka ortan sarturik dago. Gizonaren leya ta yoranak asetzeko gai ote da, eta bera bakarrik ote da? Orixe jakin bear".

"Baña gure eskoletako irakastaldietan galdera ori egin ere ez digute egiten, eta egiteak berak kristau-legea uztea dirudi; kristau-legea Jainkoaren itza baldin ba' degu, izan ere ez genezake olako galderarik egin, ez sustraizko ezbairik ortan erakutsiko. Jaungoikoaren irakatsia, nai ta nai ez, gizonari egokien datorkiona izan bear, eta ortan galdezka aritzeak fedean kilikoli ibiltzea dirudi".

Orrela irakaspena ta bizia elkarrengandik urruti dabilta, elakarrenik urruti beren sisinmenean zirritu bat ere ez dutela bizi diranen eta munduan gogo naasirik eta iraulirik dabiltzanen artean.

Ebanjelioan, ordea, eta berdin antziñako kristauen artean, kristau-legea gizonaren lei zindo guztien betegarri bezela agertzen zaigu, gure yoran garbieneni erantzunik egokiena bezela. Orra zergaitik leen-gizaldietan Kristoren irakaspena bere barneko indarrez, ezerk ere gelditu eziñik, oldarrean zabaldu zan, orduko gizarte-indar guztiei buru emanik. Onak gogoetatsu jarri bear ginduzke.

Kristo'k eztigu goi bizitza bakarrik ekarri; goi-bizitza, geroen baten, gizonari berez dagokion biziaren osagarri degu. Teolojiak estu auxe iñoiz aantzi. Teolojiak beti irakatsi du, gizonen osotasuna, berez dagokiona ere ez dezakela iñork iritxi, goi-biziaren laguntzarik bage. "Jainko-biziaz estu bakarrik gizonaren bizia goragoko oin batera jasotzen; gizatasuna bera ere oso ta betetzeko bearrezkoa degu".

"Erdi-aroan asita, kristau-morala esparru baten sartuta bezela azi da; eztegu aantzi bere muiña, goi-bizia, baña bai muin orrek eguneroko bizitzarako berekin ekarri bear dituan ondore batzu".

Eta onela, aburu ta uste oyei atxikirik, gure irakasle au aurrera dijoa, oraingo literaturan, bai filosofizkoan ta bai irudimenezkoan, bizienik azaltzen diran gai ta kezka aztertuez. Eta oan bere azken-itza: egungo egunetan gogoak kezkarazten dituzten gai guzti oye kristau-legean erantzunik egokiena arki dezaketela, lege ori oraingo aldi-etarako, egokiturik, dagokion bezela azalduko ba'genu.

Eta Leclercq jauna luzetxo ari da kristau-legea nola itxura berri baten azaldu ditoken erakusten. Geyegi ez luzetzearren, ez ditugu emen aipatuko ortarako dakazkian arauak eta argibideak, ezta ez gera oraingo irakasbideak dituelako utsen-xetasunetan sartuko. Orañarte esanak naiko izan bitex Lovaina'ko irakaale onak nondik nora josten duen nolabaiteko antza artzeko.

6. Liburu ontaz zer esan?

Leclercq jaunaren liburu au Eleiz-agintarien bai-
menakin argitaratu da bospasei urtez;baña 1956'gn urtean,
otsaillaren 2'an,L'Osservatore Romano'k jakinarazi zuen
liburu ori biltzeko agindua zegola,saltzea galarazita gel-
ditzen zala.Zer dala-ta? Liburu orrek eder eta ongi esanik
ba-du,noski eta skotan zuzenean dago.Baña beste askotan
beltzegi jartzen du kristauen arteko egoera,eta bear-hada
noizpait,Eleizak duen maixutzari ez dio naiko begirunerik,
ikututxoen bat,egiten dio,asmorik onenez ba'da ere.Kasuis-
tikari,noiz zer egin bear dan erabaki-bearrezko kezkar-
jarki zaio batez ere.Ontan ere urrutitxoegi joan dala esan
bear.Ba'da kristau-moral-libururik uts oietan jaisi ezta-
nik gure egunotan beintzat.Or ditugu Alemani'n Tillmann -
Steinbüchel'enak eta oraintsuago HÄring'enak; or degu Fran-
tzi'n Lottin'enak.Gaiñera on da,bearrezko da kristautasu-
naren aberastasunak gure egiñen argitako,gure eginbideen
zuzenbiderako gogotan artzea.Gure gogo-biotzen azkargarri-
rik aundienak ditugu.Geren buruez aantzirik,gure urkoen al-
de,gizarte osoaren alde su ta gar ekiteko indarrik aundie-
nak emango dizkigute.Gure gogoak kristautasunean argitze-
ko,eskolatzeko ezin egokiagoak eta bearrezkoagoak dira.
Baña beste argirik ere bear degu,aldian aldiko ez baiak
ayenatzeko argia, noiz zer egin bear degun argi ta garbi
esango digun argia. Ortan kasuistika-liburu oyek eztera
bartzertzekoak,zerbait mesede egingo digute. Ori Leclercq
jaunak bear ere ba-daki ta aitortzen du. Orregatik,azken
itza esateko,liburu orrek zalaparta geyegi atera ote duen
esan bearko. Eta zalaparta ori kristau-gogcak zerbait nas-
tekatzeko izan ditekela,orra zergatik zuzen ibilli dan
gure Eleiza Ama Donea liburu ori zokoratzea erabaki duene-
an.

Abelino Anaita

Begoña'ko Karmeldarra.

KRISOSTOMO DEUNA "APAIZ"

SARRERA- Apaiz izan nai degunok jarraibide asko ditugu, baña maiz bide berri billa ibiltzen gera. Santuak izan dira apaizgoaren barren maña ondoen ulertu dutenak. Orregatik lan ontan Krisostomo domearen bizitz eta erakutsiak azaldu nai nituzke.

Lan onek bi zati izango ditu:

1. Elburua: Bere "Apaizgoa" liburuan erakusten diguna.
 2. Costantinopla'ko Alkian Gotsai; bere bizitza.
1. Elburua: "Apaizgoa" liburua.

Gerkar eleiz-gurasoen artean Origenes bakarrik degu Krisostomo baño ohea idazten. Apaizgoa liburu onek sei atzalburu ditu. Beti izan da onenetakoa; bai gai onetas lenengoetakoa dalake, Bai ta Costantinopla'ko Gotsai Jaunak bere biotzetik serion maistasun gartsu ta xamurtasun berezi bat esarri ziolako ere. Garrantzi aundiko izan zan bereala. Nila ibai ertzeko lekaidetxe-buru zan Pelusid'ko Isidorok ere asko aipatzen du; 392'gn urterako Jeronimo deunak esagutzen zuan.

Esan ditzagun itz bi Krisostomoren liburu eder, zoragarri oni buruz: Krisostomo donea izlari trebea degu. Baña bere itza ulert-errex ta xamurra da. Ez uste izan teologigari (itz onek zeat meatz esan nai duan eran) sakona izan zala. Garai artako estabaidak ajola gutxi ari. Auzi auetan sartzea etzuan nai izan. Bere ondorengoen idatsitan, Arrio, Nestorio, ta Eutike'ren estabaidetan artuemanik etzuala izan ikusten dugu. Ta gai auetan, Atanasio, Cirilo, Basilio edo Gregorio'ren antzik etzuan. Bere lana oiturak zuzentzea baitzan. Orregatik ordukoen esana su zan: "Mopsuestia'ko Teodoro Jakinduriz jazten ari da, baña Krisostomok

eguneroko oiturak aztertzen ditu".

Berak esaten zuan:"Idazti deuna guk eztegu zuek ikasi dezazuten irakasten,zuen oiturak zuzentzearren baizik.Au gabe, Idazti deuna erakustea edo irakurtzea alperrikako da". Bai, bear zilleiztilari(moralista) eta gizaldi guztietako izlaririk trebe ta onenetakoa bai dugu.

Bereala erri guztiak "Urrezko ao" izen-ordez deitzen zion.Eliz-gurasoen idaztien edeslari batek dionez izlaririk bikain eta errikoiena omen da;ez kristau artean bakarrik,sinismen-gabeen artean ere bai, Demostenes kendu ezkeru.

Laburki esan dezagun orain liburu au noiz idatzi zuan.

Juan leñargi aundikoa zan. Bere ama alarguna azeria ona ematen saiatu zan.Ortarako,garai artako izlarrien buru zan Libario'regana biali zuan.Edozein gai erabiltzeko trebetasuna argandik ikasi zuan.Geroz trebetasun eta erretasun onekin Berri Onaren mami garbi-sakona ikusarazten digu.Baña trebetasun au ezta egiaren kalte,edergarri baizik.

Bere lan au 381-386 urte inguruan idatzi zuan, artean jaulpatsein (diakonu) zala.Liburu au idatzi aurretik sei urte igaro zituan basamortuko lekaidetxe batean Jaungoikozko gaiak ikasi ta ausnartiaz. Liburu au Joanek apaizgintzaz daukan iritzia dala esango nuke.Eta onela,bera apaiz ez izanik garrantzi aundiagoa dauka.

Lenengo Basiãio'rekiko bere adiskidetasuna agertzen digu.(Basilio au Cesarea'ko Gotzai,Basilio "aundia" ezta).Baita ere bere lagun Basilio nola,apaiz lenengo,eta gero Gotzai egin zuten. Berak,berriz, apaiz egin nai zutenai iges egin zien.Berak gero zergaitik iges egin zuan azaizten digu eta bere jokabide au ontzat emateko Basilio-ri eskatzen dio. Lelo au da liburuaren ari. Eta ari oni jarraituz beste gai guztietzaz mintzatzen da.

Krisostomo "jaulpatsein" izanik apaizgintza oso-oro ikustatzen du. Bere aunditasun,neke,ta arrisku guztiakin. Onela bere jokabidea,naiz apaiz,naiz gotzai ez izatea,ontzat artu arazi nai du.

Iru gogai etengabe erabiltzen ditu:

1. Apaizak bere eginkizunak ondo betetzeko dauzkan eragozpenak.
2. Apaizaren aundi ta edertasuna.
3. Krisostomoren oarrak.

1. Bere liburutik zati batzuk aukeratu ditza-gun: "Erne egon bear du apaizak edozein gudatako. Mota askotakoak dira gure etsaiak eta guztiei aurka egin bear diegu. Baditeke... sinisgabeak, judutarrak edo "maniqueok" otso amorratuak lez gure artaldea irintsitzera etortzea; erne egon gaitezen. Gudariak, ona baldin bada, esnai eta argi egon bear du beti; ermaiago oraindik etsaia etxe barruan badauka".

"Baña burruka oiek ikusita alaz ere norbait, gai izkutuak aztertzen ari diran etsaien aurka jeikitzen baldin bada, arro eta ezjakintzat artzen da. Orregatik bere eliztarrai izki-mizki aukeratu utzi arazteko Gotzaiak zur eta zentzuduna izan bear du" (4^{gn} liburuan).

"Bai zailla dala sendagillearen lana! Gerta leike gaiztoa bigunki erabiltzea; aiztoa ezurretaraño sartu bearrean azal ebaki bat besterik ez egitea. Baña gogorki erabilli eta gaiztoa zapuztea ere baditeke. Ta au es da obeago" ("5^{gn} liburuan"), Bai dala bearrezko edonor naiz zigortzean naiz zuzentzean zur eta zentzudun jokatzeari!.

Basilio^k berriz ere apaiz egiteko esaten dio. Baita Joane^k ere erantzun: "Ez nazak zigorkada seguru batera eragin. Eginkizun oratarako "aingeruen ekanduna" (Birtutea) bear bai da; basamortuan erritik urrun bizi diranak... ..atseden geiago nai ditek, lasai ta pakean bizi izan afen... Izan ere apaizak, bere anima kutsa ta erru guztietatik garbitu ta errugabe bizitzeko bear duan indarra aundia bai da!" (5^{gn} liburuan).

Baña Krisostomo^k ezto uzten apaizgoa berarekin dakazkin egin bearrengatik, apaizgoaren aundi eta edertasunagatik baizik.

2.-Apaizgoaren eder eta aunditasuna. Lemen apaiz izatea zer dan agertzen digu: "Apaiza Jaunfoikoaren aurrean mundu guztiaren bitarteko da"... "Apaiza mundu guztiaren eskubide dun eta guztion aita lez Jaunarengana urreratzen

da"...Azkenik Jesukristoren esan au gogoratzen digu:"Apaiza giza-argi eta lurrarekiko gatza da".

Apaizgoa gañera Xto'gan daukagun maitasun agirik aundiena da:"Maite banazu,zitu nere ardiak"(Io.21-15). Esan zazaiken:"Barau egin maite banazu...Edo ernai igaro".. eta abar.Baia olakorik ez dio agintzen ,"ardiak zaintzeko baizik" (2'gn liburuan).

Apaizgoaren izamena utzi eta bere almenak (almenak ikusten asten bagera,Krisostomo'ren biotz gartsuan o-iartzun sakon eta berdiñak sortzen dira.

"Odol eta aragizko gizona izanki,zeruko ondasunen eskubide guztiak dauzka apaizak. Aingeru berak ez daukaten eskubide bat ere bai;obenak barkatzekoa" (3'gn liburuan). "Aldareko opari eder, zoragarria eskeintzeko almena gañera.Bai gabri eta ukatua izan bear duala apaizak,Aingeruak au ta aldarea inguratzean eta Aldunek aldare domean zeruko Jauna jauresten dutenean...! (6'gn liburuan).

Apaiz gañera: a)Jaungoikoaren eskuordeko da(I Cor. 4-19)

b)Gure animen egizko aita.

k)Gai ontan Pablo domearen irudia

jartzen digu gure begien aurrean Joan Krisostomo'k.Ezer-txo ere ez dugu esan orain artean Joanek Pablo domeari zion begirunez. Apostoluaren bizitza ta erakutsiak etengabe gogoratzen dizkigu.Antiocki'n eta Costantinopla'n 250 itzal di gutxienez egin zituan Pablo domearen idazkiaz.

Pablo domea islari trebea izanik Joanek Jarraibidetzat jartzen digu.Izlari ederra degu bear ere.Len esan degunez "urrezko so-dum" izen-ordez deitzen zioten. Laugarren liburu erdia eta bostgarren liburua osan apaizak "Berri Onaren zabaltzaille izan bear duala adierazten digu".

Apaizak Israel'ko Maixu dan lez its egin bear du.Eta lenen entzuleen biotzetaz jabetu,auen animetan Jaungoikozko azia ereiteko."Ez dedilla erria apaizaren zuzendari izan,apaiza erriarena baizik".

Bera,garai artako islari-etxe onenetan ikasle izan zan.Ondotxo ezagutzen zituan gerkar izlariak,Ala ta

gustiz ere Pablo donea jarraibidetzat jartzen digu.

Azkenik bi oar egiten dizkigu:1.-Ez dezala inork arrokeriz itz egia.

2.-Maixuak(erakusten duanak) lenen berak egin dezala erakusten duana.

3.- Joanen oarrak.

1.)Lenengo apaizari ,Satanas'ekiko guda irabazteko erri egoteko esaten dio;etsaiaren indar eta jokabideak ezagutu bear ditu. Orregatik esan leika:"Apaizaren bizitza egiz guda etengabe bat da".Baña,nor dugu etsai? Entzun: Pablo doneak esaten digu:"Ez da,ba,aragi ta odolaren aurka darabilkigun burruka;beste al izate ta indarren aurka da...(Efes.6,12)

2.)Apaizaren sotiltasuna.-"Apaizak erri ta zorrotza izan bear du.Bere begiak leku guztiak miatu bear dituzte, bere ardurapean daukan eliz-barrutia ondo zaintzeko"(3'gn liburua). "Alargun ta neskutzen ardura,gañera (batez ere neskutzena, pitxi eder ta zoragarriagorik ez bai-da);arrotz,gaxo ta epai-~~eskutidea~~ ere zaletasun suntuakin zaindu bear du.Egiaz,eleiz guziekiko ardura".

3.)Erriaren iritziak ajola gutxi izlari ausartu oni. "Erria ume bat dala " esaten digu. "Umeak negar egin,iraindu edo jotzen bagaitu,ajola gutxi guri;baña ez degu arrotu bear gogoratzen bagaitu ere. Apaizak erriakin berdin jokatu bear du. Goratzen badute, ez du arrotu bear;ez ta apaldu ere erriaren esanengatik,oiak garrantzik ez badute" (5'gn liburua).

4.)Batez ere "urrezko oar au" egiten digu.:Nagusia menpekoaren ikasbide izan dedilla;"apaizaren utsuneak garbi azaltzen bai dira".Orregatik "zuen argia dirdir bego", argimutil gañean dagon gizonaren utsunea kaltegarri bai-da.Epelak lasaitu,ta lan egin nai dutenak arrotu arazten ditu.(3'gn liburua).

Apaisaren jokabideak mintzatu ondoren,apaizgaiak aukeratzen dituztenen aurka eraso gogorra egiten du.Espa ta griña txarra eraginda askok apaiz ta Gotzaiak aukeratzen dituzte.Gai estiranak ez dira aukeratu bear;beren ontziko lapurrak izango bai lirake.Apaiz txarra danak ez de-

zala aitzakirik sumatu. Oroitu bedi Saul, Heli, Aaron ta Moises'taz. Baita ere Judas eta judutar sinisgogorren jokabidetaz.

Orregatik agiz eskatzen du: "Uka beza gizonak bere burua".

Gero apaiz ta lekaidearen bizitza berdintzen ditu. Arena zaillagoa izanik ederragoa dala dio. Au bera dio, eta itz auekin amaitzen du bere liburutzos, Tomas deunak esaera eder ontan: "Bakoitzak bere baitan ausnartzea baño, ausnartutakoa besteei jakin-araztea ederragoa da".

Labaka'tar Iñaki.

Donosti'ko apaizgaila.

JAINKORIK BAI OTE ?

Galdera ori es da gure egunetan egin len aldiz, antziña antziña antziñakoa dugu. Pilosopilaria gizona dantetik da; gizon bakoitza bere neurrian pilosopilari dugu. Adimenaren jabe dana pilosopi egiteko edo pilosopoki jokatze ko era ba du. Pilosopi saillean adimenaren indarrez, almenez jakin liteken guztia sartzen da.

Jainkoaren izatea ere adimen utsez ezagutu ta egiztatu liteke, sinismena alboan utzirik; naiz onek asko indartu adimena. Baña gure adimen motz eta koxkor onek Jainkoaren izatea ziur-ziur jakiteko ainbat indar ba al du? Jainkoa dan bezela, Eta Beraren izaera ezagutzeko aña indar ez du; gizonak Jainkoa itzalpean bezela dakus, bañan orrek ez du esan nai gure adimenak Jainkoa ez dazagukunik. Jainkoa badanaren berri izateko eta zer dan eta nola dan jakitea ez dira berdin. Gertaburu (causa) edo arazle bat ezagutzeko naikoa degu jakitea, gertakari bat arazle orren ondorio (effectus) dala. Gertakari asko dakusgu ludi onetan: oietako bat ibiltzea. Naikoa dugu bada ibiltze ondorio orren gertaburu edo arazlea Jainkoa dala egiztatzea. Ortan asi baño len noan lenik Jainkoaren izatea a-zaltzera eta noiz eta zeñiek arkitu edo egiztatu duten.

Gure lenengo gurasoak bazuten Jainkoaren berri, beren adimenaren indarrez ez bazan ere Jainkoak Berak azalduta. Geroago gizonak ugaritu ta mundu zabalean barratu ziranean gizaon-talde askok beraren berria galdu zuten. Israeldarrei bide au bera jarraitzeko arriskuan ziranean

Bera zala Jainkoa azaldu zien askotan,naiz mirari arrigarrrien bidez,naiz zogor beldurgarriz.Orrrela Israel Jainkoaren erri berexiak etzun sinismena galdu. Bañan etzan berdin gertatu beste erriekin.Jainkogan sinismen guztia galdu zuten eta denboraren denboraz Jainko berriak sortzen dituzte. Orra or Egiptoarrak beren Nilo,Lurra,Zeru eta Eguzki jainkoekin;eta Asiriarrak beren Totemekin.Geroago gerketarrek gizon itxurazko jainkoekin.Ikusten danez,egizko Jainkoarenberri galdu zuten,bañs ala ere jainko norbaiten berri gorde,naiz gezurrezkoak izan.

Gerketar erri sinisgabe ura oso pilosopizalea zan;berezkoa zuten egi sendoak barren barrenaño aztertzea.Bañan etziran,ez,gerketar pilosopolarí gusi aiek giza ontakoak.Sofistak zeritzaien itz-jario aiek beren sofisma edo itz jokuaz egiaren sinisgabetasun sakosian murgildu ziran.

Sokrates jakinzalea izan zan berriro egiari itsatsi zana,ta onen eragiñez Platon eta Estagiritar Aristoteles aundiak ditugu ainbat eta ainbat urteetan pilosopilarien eredu.Iru auk ezarri zizkioten pilosopiari bere oñarri sendoak.Jainkoaren izatea eree egiztatu zuten.Bañan zein zan Jainko ori?Mitologikoren bat?Ez,geurok gurtzen degun Jainko bera zan.Egia utsa eta gogo utsa dan Jainkoa.Gizon eta diran izaki guzien egille eta beren gañetik dago na.Jainkoaren izatea egiztatzeko bide asko artu zituzten eta guztiekin iritxi Jainkoa badla egiztatzera,oietako batzuk:ibiltzea,gertaburu eta gertakariena.Pilosopi sako-na egin zuten gizon argi auk,sofistan arrazoiketa uts eta txorazle aiek alde batera utsita.Sofistak beren arrazoiketaen bidez,sakela guritzeko era ederki egiten zuten,bañan ez Platon eta Aristoteles'ek egiaren maite-miñez zebiltzen eta beraren billaketan jarri zuten beren adimen bizkor eta zorrotza.

Auk sortutako pilosopi sendoa izan zan,da,eta izango ere bai pilosopi on guztiaren eredu ta oñarri.Agustin doneak Platon'enen edan zun eta jakinzaleak oro bera jarraitzen dute Tomas donea azaldu arte.Onek beste beste iturri batean asetzen du bere jakin egarria:Estagiritarre-nean ta emen asten da erregetzarca pilosopi sallean.

Akinotarrak Jainkoaren izatea egiztatzean bost bide ibiltzen ditu; lenengoa ibiltzearen bidea degu, Estajiritarrari artua bañan piska bat txukunduta. Nik ere bide onekin berarekin ekingo diot asieran egindako galderari buruz. Ara bada: Ibiltzea badala argi dakusgu, begiak irikitzea naikoa. Zer dakuste bada? Ibilketa ugari: txinarak egan, arranoak mendi inguruan beren ibilketa apañak erakutsiz; gizonak aruntz eta onuntz. Bizia daukan guztia badabil: "Vita est motus". Bañan ibiltzea ez degu artu bear tokian bakarrik, badira beste mota asko: Ura otza dago bañan sutan jartzen dala berotu egiten da. Ezkur bat ereiten degu eta illabete barrun landare txiki bat ernetzen da ta denboraren denboraz aritz beltz, gogor ta trinko egiten. Gure begiak dakuste, belarriak entzun; gure adimenak ulertu, egi berriak jakin; naimena berriz zerbait leiatzen da. Zer dakusgu bada egite guzti auetan? Ibiltze bat, izakizunetik (potentia) izatera (actus) igarotze bat. Ura otza dago, au da, beroaren izakizun dago, bañan sutan jartzean berotu egiten, au da, bero izatean jartzen da. Adibide onetan aldaketa, ibiltzea bat, izakizunetik izatera igarotze bat gertatu da. Ta ibiltze esan nai ontan artu bear degu: izakizunetik izatera igarotzean. Ikusi degu bada ludi onetan ibiltzea badala, baño zerbait ibiltzean jartzearen bultzakada bat bear da, bultzakada eman bear dun norbait, au da, motor edo eragille bat. Ala dio Aristoteleseki: "Quidquid movetur ab alio movetur". Dabilen guztia bestearen eragiñez dabil.

Ibiltzea daukanak ez du bere indarrez ibiltze ori. Jarri dezagun berriro lengo adibide ura. Suak ura berotu egin du, ez daberez berotu ura, baizik suak. Ura berotzeko, lenik otz egon bear zun, au da, beroaren izakizun egon bear zun. Norbait ibiltzean jartzeko, ez ibillian egon bear, esate baterako, geldi. Baña geldi dagonak nola eman berari ibiltze ori?: "Nemo dat quod non habet": ez duneti, iñork ezin eman. Ikusi degu bada dabilen guztia bestearen eragiñez dabilela. Baña eragille saillean bear bearrezko da eragille bat iñork ibillia ez dana eta beste guztiak ibiltzeko indarra berez dun eragille bat arkitzea. Izan ere eragille guztiek bestearen eragiñez badabiltz, lenengo eragillerik, au da, ibiltzea sortu arazten dun eragillerik ez genuke izango ta au gabe ibiltzerik ez litzake ludian ta iñon. Bañan zergatik ez litzake len eragillerik, eragille guztiak

bestearen eragiñez badabiltz?ara emen adibide bat galdera orri erantzunez: "Jarrri ditzagun bost kurpil borobillean; ta ikusten degu lenak bigarrena pirikatzen dula ta onek ar-tu dun indarrez irugarrena ta orrela boskarreneraño. Bañan orain ezin esan onek lenena ibiltzen dula ez al du ba onek boskarrena ibiltzean jarri beste bitarteko gurpillen bidez? Lenen eragille da ibiltzearen gertaburu ta beste bitarteko eragilleak lenbizikoaren indarrez dute ibiltze ori. Lenenak ez balie indarrik eman besteak geldi egon bear.

Bada beraz lenengo eragille bat iñork ibillia ez dana bañan beste guztiak erabiltzen dituana. Eragille onek izakizunetik ezer ez du, erabat izatean dago. Izakizun ortatik zerbait balu ibillia litzake ta orrela ezin izan lenen eragillea. Izakizun gabeko lenen eragille au Jainkoa dala aitortzen dute guztiak. Beraz badala Jainkoa erantzuten di-ot asieran egindako galderari. Amaitzeko aitatu dezadan Pau-lo doneak Jainkoagatik dasana: "Beragan egon, bizi, ta ibil-tzen gera".

Muxika'tar Urrupin,

Lazkao'ko filosofari.

KANTUA GURE

ELIZETAN

Hemen eman jarraibideak,egin gogoetak ez dira o-
hartbide batzu baizik.Ikasle gazte batek denak begi berri
berriekin ekusten ditu.Asmu ederrak ukaiten ahal ditu,a-
ments ederrak egiten ahal,gogoeta onak ere,zertako ez!Bain-
nan ez du zaharren zuhultzia... denak egin ukan!

Bertzalde ez dugu deus mozten,ebakitzen.Herri
batean atzeman usaia,ez da den bezala ezartzen ahal bertze
batean.Gutarik bakotcha,bere izariko jauntziaz estaltzen
da! Ez da hor gaizkirik.Bainan badira lege batzu denen i-
zarian eginak.Heiek ditugu bakarrik higituko,argituko.

o o o

Duela zonbait ilabete,Bachenabarreko herrichka
batean nintzan.Besta buru handia zen ta beraz herri guzia
elizan:galeriak gizonez brokatuak,pea emaztez bethea.Lehen
ere,behin baino gehiagotan entzuna zuen,herri berean meza
nausia.

Eder eta choragarri iduritu zaitan bethi.Egin
erranezko bozkarioa zen enetzat herri guziaren kantua eta
othoitzen entzutea.Bainan egun hartan barne guzia inarro-
si daut,hobeki ikusi eta sentitu baitut aldarean zagon a-
phezaren eta herriaren arteko lokarriak.Denak bat ziren
meza hastetik bururat.Zer kantuak!"Kyrie","gloria",eskain-
tza (eskuaraz bi bozetan)"Credo","Sanctus","Agnus",apheza-
ri errepostuak,oro herri guziak batean. Zinez eder zen,he-
rri guzia han zelakotz aphezaren inguruan,harekin ogi eta
arno beraren eskaintzen,gero haren eskutik jateko mahain
sainduan...

Juan den udan, gazte guziak Nabarrako hiri tarro batean gertatu gira. Chuchen Santiago eguna zen. Heldu orduko jakiten dugu meza nausirat joaiteko ordua dela. Bagoatzi beraz, begi-beharriak ontsa idekiak, seurki othoitz egiteko chedearekin, bainan ere ikusi eta ikasi nahiz. Eliza zanpez bethea zen; "Coro" bat, arras ezagutua, han zagon beha.

Meza hasten da. "Introit", hastapeneko kantua latinez, ontsa emana. gero "Kyrie" lau bozetan. Egiak erran behar du, eder zen eta zinez othoitzerat ekartzen zuen. Bainan gogoetatua nindagon ikusiz hainbertze gizon eta emazte ahoa hetsirik, ardura kantarier so. Niauren baitan ari nintzan: "Araiz" "Gloria" eta "Credo" emanen ditiek ba denek batean". Behazu hortik! Meza denbora guzian mutu egon dira aphezaren galditzeri erreposturik ere eman gabe. Delako "Coro"-aren gain ziren guziak; bertzeak so eta ichilik othoitzean. Berriz erran eta ere, Meza ederra zen, zinez ederra eta segur niz Jainkoa gain gainetik ohoratua isan dela. Bainan ez nintzan hola usatua. Zerbait uts bazen nunbait: denenen kantua, denen othoitz.

Geroztik zombait gogoeta egin ditut. Bi molde hauietarik zoin othe da "liturgiaren" legeri urbilenik jarraikia? Zoin othe da eskualduneri gienik laket litziotena?

o o o

"Liturgia", denek dakiten bezala, eliza guziaren othoitz da; eliza guziarena, ez eta bakarrik multzo batena. Eta eliza zer da? Girichtino guzien batasuna: Denak bat elizan, beren aphezaren inguruan, obra beraren egiten, sakrifio beraren eskaintzen, horra zer den liturgia, horra zer den Eliza. Beraz girichtinoek badute beren aginbidea betetzeko elizan, eta heiek gabe ezin dateke izan zinezko liturgiari, liturgia beterik. Goazen oraino barnago. Grichtinoak ichil eta mutu egoiten direno, aphezaren egintzan sartzen ez direno, ez dute beren aginbidea osoki betetzen. Girichtinoek, elizan, e g i l e behar dute izan, ez eta s o e g i l e . Herri guzia elizarat biltzen dalarik, ez da biltzen bakotchak bere chokoan bere gisako othoitz bat egin dezan. Ez, bainan:

O t h o i t z b a t, aphezak, denen izenean, zeruko Aitari buruz izan-arazten duena;

O g i bat, a r n o bat denek batean aphezarekin eska-
intzen dutena;

H a z k u r r i bat, denen eta bakotcharen arima hazten
duena. Denek, beraz, lokarri berak, amodio bera, ogi bera dite-
lakotz jan.

Fontsian so egin dezagun elizako liburuari: aphe-
zak egiten du "sakrifizioa", harek eskaintzen ogia eta ar-
noa, egia da. Bainan beharriak idek ditzagun eta entzun ha-
rek hitzak: Oremus: othoitz egin dezagun; Gratias agamus:
eskerrak bihurtzen daukitzugu; Offerimus: eskaintzen dau-
kitzugu et...

Apheza ez da bere izenean mintzo bainan bai de-
nen izenean; ez du bere ogia eta arnoa eskaintzen baina
bai denena.

Bertzalde, huni ere ohartzea on da, gizonak gira
erran nahi baitu gorphutz eta arima. Arima salbatu behar
dugu, bainan gorphutzaz baliatuz. Pascal aipatuak zion: "Kan-
poak barneari juntatu behar du, Jainkoaren ganik zerbait
ukaitekotz". Zonbait mende lehenago, solas berak atchikitzen
zituen Tertullien deitu gizon handiak, Sakramentuez mintzo
zen baten: "Caro, salutis est Cardio..." "Nundik ez, ez gira ba
izpiritu hutsak. "Liturgi"-an, gure gorphutzak parte handia
badu. Zonbat mohimendu meza hastetik bururatzerat! Belauni-
ko, chutik, kurri, kantuz... Eta ez esan izpirituaren barrea-
tzeko baizik ez direla on. Mohimendu horiek guziak, aldare-
an aphezak egiten duen sakrifizioari hurbilik jarraikitze-
ko ezarriak dira. Eliza zokoan, bi begiak hetsirik, Meza den-
bora guzian bar bar bere othoitzetan ari den presunak ez
du lokarri handirik aldarearen den aphezarekin. Aldiz, zer
bozkarioa ikusiz jende guzia aphezaren mohimendu eta gal-
ditza guzier jarraikia. Hauiek izpiritua aiseago moldatuko
dute, ezinez eta bertzeak.

Ainitzetan keinu batek manatzen dauku gure ari-
metan behar ginuzken sendimenduak. "Prefazio"-aren hastean
denak chutitzen girelarik Jainkoari gure eskerren bihurtze-
ko, ez othe da egia, chutitze horrek berak gure barnean, hi-
tzek manatzen duten sendimenduak ezar-arazten daukula.

Gerochago, Sagraiorat heltzearekin, belaunikatzen
gira, burua aphaltzen dugu, gorphutzak arimarekin batean Ja-

inkoa aiseagogor-aipa dezan.

Ez dut erran nahi gorphutzaren jua jinek man-
tzen dutela anima. Ez dut erran nahi ere gorphutzaren kei-
nu batek emanen daukula barneko karra. Ez, bainan, gorphutza-
ren mohimenduek, entzun hitzek, erran edo eman kantuek orho-
it-arazten daukute nun eta nolako sondimenduak behar ditu-
gun holako eta halako mementoan. Jakinean egin mohimenduak,
gure ispiritua biltzen dute barreatzeko orde.

o o o

Beraz, bi lege airetak:

- Denak bat aphezarekin, arima bat.
- Bainan gure gorphutzaz baliatuz, gorphutz bat.

Horri ontsa behatu eta, aise ikusten dugu kantu-
ak zer izan behar duen elizan: a h a l a z d e n e n a.
Zer, orduan, "Coro"-ak bazterrerat utz? Ez, bichtan dena. E-
lizan edertia (art) aizu da; ez bakarrik aizu; aizu eta be-
har. Bainan horra: edertiak behar du batezpada "liturgia"-
ren meneko egon; haren mutil, ez eta haren nausi. Beraz
hau erran ditake: kantuak ainitz bozetan emaiten ahal dira,
bainan ez sobera ardura. "Coro"-ek egiten badituzte kantu
guziak, nun da lekua bertzentzat? Ichilik egoitea bortcha-
tuak dira; eta hori huts handia... Uste dut, mendiz bertzal-
deko eskualdunek, guk baino gehiago indar egin behar duten.

Han, 500 arimaz goiti duten herri guzietan bada
"Coro" bat. Ardura ttipiagotan ere. Meza ederrak sagurki, ba-
inan ez liturgia-ren legekin ados, ez denen kantu bero hu-
ra.

Hemen aldiz, "Coro" guti. Ordainez denen kantua.
Denek eman kantuak arima alchatzen du. Ardura, "Coro"-ak,
"gochatzen" bakarrik...

o o o

"Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi", zion
pertsulari batek. Egia da, eskualdunak kantua maite du. Mer-
katu batean iragan zaiten, ezta batzuetan, edozein biltza-
rretan gerta zaiten, eskualduna bethi kantuz entzunen duzu;
bere grñak eta lanak, bere atsekabe ta atseginak, denak
kantuz iresten ditu. Ez othe du Jainkoak eman dion doain

hori baliatzeko Elizan? Bate dudarik gabe.

Zer da, denek batian eman kantu bat baino ederra-
gorik! Zinez bada batasun bat, bero bat batetik bertzera
doana. Aldarean den aphezarekin lokarriak tinkiago dira de-
nek batiak ihardesten dutelarik haren galditzeri, denek si-
neste bera finkatuz.



Kantua "liturgia"-n eta "liturgia" kantuz. Egin-
bide hori bete nahiz, hasi ginen "Ezkila"-ren muntatzen. E-
meki, ichilka bezala menturatu ginen. Lan batek bertzea eka-
rri du, ideia batek bertze bat sor-arazi, bainan ez dira o-
raino ideia guziak lantzeko heinean. Sortu berriak gira, ba-
inan egiak erran behar du, ainitz kantu eta bertze lan he-
datu da gure Herrietan, ideia zabaleko ertor batzueri esker.

Nork ere nahi baititu chehetasunak, nork ere nahi
bagitu lagundu gure obra onean, galda dezaukula "Ezkila"-k
agertu guzien bilgia (catalogue)

Editions EZKILA

N.D. de Belloc

URT (B.P.) France.

Anai Iñaki Etchehandy

Beloke-kos.

ARIMIZTIA

AZKORRORAN

Aita Gemellik "Psicologia de la edad evolutiva" liburuan dakarren arauz.

I.- PERSONALIDADEA

Aita Gemelliren ustez gizatiar personalidadea auxe da: "gizonagan arkitzen ditugun biziztiar eta arimiztiar gaien batasuna armonikoa. Eta personalidadea eta gizon bakoitzaren berezitasuna gauza bat da." Ona emen bi terminotan daraman definizioa.

Lenengo atalari derizkionez, arimiztilari asko arkitzen ditugu gizatiar gai menak atomistikoki, banaka gogartzen dituztenak eta ondore au ateratzen dute: personalidadea gizonaren nolatasun guztien txorta da, bakoitza bakar-ki artuz, onen men guztien txorta. Au oker bat da.

Egia, arimizti ta gorputzizti gaiez osotuta gaudе, bañan personalidadearen gogaitzez badiardugu, batasun bat bezela euki bear degu personalidadea, eta teknikak onela eskatzen digulako biotziztiar bizitzaz eta gogozko egimenetzaz mintzatzan bagera ere, gogoan izan bear degu, artifiziala dala banatze au, gizonaren bizitzarena, ots, gizonaren arimizti eta gorputzizti bizitzarena bezin artifiziala.

Bigarren atalera sartuta auxe ikusten da: personalidadea, berezia da bakoitzagan. Ez bizitzaren lenengo urteetan, menak azkortzeke daudelarik berdiñak diralako denak.

Almenak azkortzen dijoazten neurrian, men denen aiurri saillean tarte bat artuko dute.

II.- AZKOR-AROA

Stern, arimiztilariak "personalistica" deritza azkor-aroari. Ederki esanak daude onela arizmiztiar aldakuntzak, barneko burrukak eta funtzioen auziak, gero, denen txor-ta ta ondorea personalidadearen erabidea izango da. Aro ontan, umea eta mutikoa izaera eta nolatasun betiko bat artzen ari dira zirti-zarta izugarrian. Besteengandik berezitzen diran aldetik, badaukate personalidadea; eta bere etor-aroako personalidadea au mallan mallan azkortzen daramakite, aberasten, osatzen, batzuk azkar eta besteak poliki, kanpotik ditun zer eragille edo faktoreei jarraiki, ots, ezierari ikaslaritzari, jardunkintzari eta auzoki edo ambienteari jarraiki.

1) AZKORTZA.

Au egin bat da: gizonaren arimizti alde eta gorputzizti alde batera azkortzen dirala. Paralelismo bat dago. Esate baterako, aurre, ezterriko organoak eltzen zaizkionean eta antzarpenez edo imitazioz, gogozko menak kizunaren edo objetoaren eta entzumenezko irudiaren arteko zerikusiaz konturatzen danean, mintzatuko. Baña paralelismo au, arimiztialri askoren kontra, ezta osatua.

Paralelismoa badago, bañan, gorputzizti azkortzak ezta arimizti azkortza zeinduko; ez ba, paralelismoa ez da oso osoa. Eta au da azkortzaren lenengo prinzipioa.

Bigarren prinzipioa au da: "eltzen ari dan personalidadearen azkortza mallak, izugarritzko lasterraldi uneak eta motelaldi bereziak izaten ditula eta bein edo bein atzeraldiak ere bai. Eta au sail bietan, bai gorputzizti ta bai arimizti salletan.

Beste lege bat ere artu ditekete erabateko bezela: dena mallaka dijoala. Goreneko funtzioa, aurretik izan zakion azpiko funtzioaren jardunak antolatusak eta erreztuak izan bear dute. Aldaketak azken mallan personalidadea artzen dutako, bi alderdi dauzka: geldiro, bakoitza zeintzen, motatzen dijoa bere nolatasunean. Arimizti batasunak geroago ta areago batasunaren atzetik dabil.

2) FAKTOREAK.

Bi lege berdin jarri bear dira gizon

guztientzat. Lege auek gizonen bi joera nagusienetan agertzen dira: iraupenerako joera eta aurrerapenerako joera. Lenengo joerari jarraiki gizona aski arduratuko da bizitzeko gauzak eta alakak billatzen. Bigarrenari jarraiki gizonak bere izakia osatzen alegiñak egiten ditu.

Eta garrantzi aundiko beste bi faktore arkitzen ditugu: ondorea eta auzokia. Landa ontan, filosofoeri utzi bear diegu eskubidea, beren estabaida amaigabetan jarrai dezaten. Auetako batzuk "nativismoari" lotzen dakie. Besteak ezetz esaten dute. Lenengo sallekokoak, au onartzen dute, zera, azkortza guztia barneko faktoreri zor zaiela, belaundartasunei alegia. Besteki bigarren sallekokoak "tabula rasa" bezela dala usten dute jaiotzen danean. Geroago dezaken guztia kanpotik artuko du, auzotik edo ambientetik.

Alde bietakoak dauzkate beren arrazoiak, baina arrazoizkoena erditik abitzea izango dala deritzait, azkortzan eta personalidatean, belaundar tasunak eta ambienteak eragiten dute, batak eta besteak. Eta mota askoko zenbagaiztza gizonak, gizonen funtzioaren aberastasunak eta giza-personaren barrun-sasiak gogortzen dute gure erdiko iritsia.

Ritmo onekin dijoa azkortza. Ezierak azkortu dezake ritmo au, baina ezin dezake esenzialki aldatu. Irakasle-tzak eragin sundia izan arren eta jardunkintzan sortzen diralarik ere oiturak.

3) AGERRALDIAK.

Jaiotaroa, jaiotzetik "gizon" gazte, ogei urte arte izaten da. Iru agerraldi dauzka: a) lenengo sei urteak, b) zazpitik amalau arte, d) amalautik ogei arte.

Atalpen au agerraldi bakoitzaren berezko aldaketa sakonen araura egiña dago; eta agerraldi bakoitza, gorputz-arimizti azkortzaren momentuen ondorea da. Nolatasun berezi bat seinalatu ditekela aldi bakoitzarentzat: lenengo agerraldi unean, jolas egiten dute eta onela sistema motriz-a eta mintzogintza osatzen dute; bigarrenengan, jolasa utzita lanean asten da, gogozko almena azkortuz; irugarrenean, barruko lana egiten dute. Gazteak, bere bizitza bizitzen asten da.

Baia laburtza onek ezta azkoraro guztia kolkora-

tzen. Laburtza au bizar-arotik asten da, ots, amabi ta amalau urtetatik, bizar-aro aurreko urteak bigarren aldirako utzi-rik eta gizaroa amalau ta amasei urtetatik, eta gaztaroa amasei ta emezortzitatik. Bizar-aroa, "ni" arkitzeak zeintzen du, gizaroa "ni" onen baitaratze edo konzientziaren eratzeak eta gaztaroa, lenen arkituta baitaratutako "ni" onen sendotze irmeak.

Aldi edo periodo aueri agerraldiak deritzaiegu. Baña ez dezala iñork uste agerraldi auek orpoz orpo urte auei lotzen zaizkienik bakoitzetan, izan ere ez dira batuzi berezietan bakarrik arkitzen berezitasunak, batuzi edo indibiduo bakoitzetan ere bai.

IRU AGERRALDIEN NOLATASUN GENERALAK

Spranger^eek definitzen du "gaztearen arimiztia emen datza, "ni"-ren arkitzean." Bizitzako asmo bateren eratze bat da, bere bizitzaren agerkera bakoitzen azitze ta azkortze geldia.

Laburtza ontan ezdet sartuko azkorraro osoa. Emen auxe bakarrik ipiñiko det: bizitza baten mallazko eratze eta azitze geldia.

1) BIZAR-AROA.

Bizar-aroa, bigarren jaiotza da. Eta au, ez "ni" agertzeagatik bakarrik, animako aldakuntza sakonagatik ere bai, ots, maitasarrerren eta adimenaren azkortza aundia, gizarteko sentimentuen agerkuntza, armegin arazoa... Azkenengo arazo onen garrantziarekin explikatua izan dituzte animako aldakuntzak, onek bizitzizti aldakuntzekin duan paralelismoagatik, bigarrengoak lenengoen ondore egifiek. Baña paralelismoaren egi osoeza ikusirik bizararo aldian mutikoaren arima-bizitzaren esanaia baitaratu eziñik gelditzen da.

Bi prinsipio jarri ditezke: 1) zalantzik gabe, garrantzi aundia dauka bizitza organikoak arima-agerpenetan. Eta au egin-kontuen azterketak egiztatzen dute. Egin-kontu auen arauz umearen azitze aundiarena, alturan, amaika urtetatik amabitara ta amabostetatik amasei bitartean gertatzen da. Beraz, bizitzizti lan aundienean gaude.

Gero auxe adierazi bear degu,bizararoa igaro-al-dia dala.Beraz bizararoan,personalidadeak,bere aurreko ta atzeko agerraldien nolatasunak eukiko ditu,au da,aurtzar-arena ta gizaroarena.Alde guztietatik aurrarena baño aberatsagoa da,baña gaztearena ainbeste ez.

Bizarraroaren aurrenetako agerpena armegiñen bereiztea da.Gizaroa eldu dedinean armegiñen berezitasuna erakarkor izango zaie,baña orain,gaurdaño alkarrekin zebiltzan neska-mutillak bakatzeko kausa da.Eta su bizarraroaren joera aldatzeari zor zaio.Alkarren armegin berezitasunak piskana nabarmentzen ari izandu dira ta une ontara iris tean,bakoitza gauza bereziagatik arduratzen da ta mutikoa bere kidekoei,au da,mutikoei batutzen zaie.Une ontatik neska-mutillak bide berriak artzen dituzte.Berriro,emen atalduko det arimizti landa ta A.Gemelliren lana,mutikoei buruz jarduteko.

Dudarik gabe bizarraroaren arazorik zorrotzena armegin arazoa da.Baña punto berezi au beste toki baten aztertuko det,orregatik an arkituko du bere lekua.

Amabi edo amairu urte aldetan,mutikoak "ni"-ri buruzko sensibilidade aundi bat artzen du.Bidegabekeriz jokutzen badira berekin,asarretu egiten da.Aolku bat ematen bazaio,burua zuti jartzen du.Eskuartean artzen duan jomugan burugogorra da. Besteki,eztenik eragilleena bere omena izaten du. Bere omenez egingo ditu,bere betebear guztiak.Omena izango du bere jomuga.Abelera au "ni"-ren baitaratzea gertuan daukan adierazpena da.Agerpen oneri jarraiki,eztu nai aurra bezela tratatua izan dedin,gazteak bezela baizik eta al dun guztia egiten du gizonek egiten dutena egiteko.Erdi eraturiko personalidadeak dira.Eta bi agerpen garrantzitsu auek,armegiñarena ta "ni"-rena,bidegaldutzearen kausa dira.Bizarduna beregan izkututzen da,bere baitan egin diran aldakuntza izugarriak agertzeko lotsaz eta sentitu ditun arazo berriak esateko bildurrez.Besteki etzaio atsegin lengo ambiente edo auzokia;eta onek goibeltasuna ta bakartizaletasuna sortarazten dio.Berekiko naigabetasunari beste nolaera oni eta egoera berri oni,etorroroko arazoak sortzen zaizkio.Onela daudenean gauza utsa naikoa da anima auek minberatzeko.Zuzentasun argirik ezak,ezin ezak,etorroroko arazoak eta bere geldotasun usteak,goibel egiten dute

ta agerraldi onen berezitasuna artzen,ots, laguntzaren bi-llaketa ta bitartekoaren bearra; persona tajuzko baten jomuga, adiskide aundi ta indartsu baten naia.

2) GIZAROA.

Bi ataletan zatitu dezakegu. Lenengoan, mutikoa lasaitasun ta atsegintasunaren jabe da; bigarrengean, larritasun aundi-ren gai egiten da ta orregatik oñazeen jabe.

Aurreko agerraldiaren azken aldean bere baitan izkututzen ikusi degu mutikoa. Orain besteekin adiskidetasunak asmatzen dakusgu. Lenengo gizaroa, izakiaganako maitasar sakon ernetzeak nolatzen du, gogozko bizitzaren eta etikosozialaren balioen jabetasunak eta beste armegiñezko personenganako maitasunak, au idealistikoki artuaz. Gizaroan bizkortasuna ta garra dira nagusi. Bizarrarotik gizarora bitartea poztasunez eta alsaitasunez beteta dago. Baña laster, lenengo galen edo desengañoagatik edo korapillo ta arazo sakonagatik edo zalantzagatik, besteen ulergaitasunagatik eta berekiko burrukagatik sorturiko une mingarriagatik, gaztea sufirtzen asten da ta aldi bizi bearrak, sakrifizio eta jasanbear asko sortzen dizkio. Bai ba, oraindik gizon eztana ikusten dualako, berak nai lukean gizonik arkitzen eztualako eta onelako beste milla gauzagatik. Gauz guztiok ez balezakete artu mutilla sufrimendu legor eta ernegaazi ontan, bai ederki.

Agerraldi onen sentimentu negusiena auxe da, zera, asmo ederren nai eta bear sutsu eta illun bat; eta nai ori asmo batean piztu ta konkretatzen da. Emendik ernetzen zaizkio goibeltasuna, gogobete eziña eta abar... Pasa ziran gizarodunentzat lenengo biozkadak eta zabaltasunak; baña oraindik eztauka gizonaren ezaguera zolirik eta ezperientziarik. Bere personalidadea erdi eratusa dago oraindik. Auxe izan diteke denen urrutiko kausa.

"Joeren anarki-aroa" ulertugaitz xamarra dalako, Aita Gemellikzenbait arimiztialriak ematen dituzten explikazioak dakartzi. Nik birenak artzen ditut: Mendousse'na ta Bühler'na.

Lenengoaren ustez, gizaroduna, arima zalantzak eta kontradikzioak asaldatzen du. Gizarodunak, iritziak aldatzen ditu, bere garrak azkortzeko prueba guztiak egiten di-

tu ta dana nai duna bein ere ez arkitzeko. Gaur oneretakoa dalakoan artzen duana, biar uskeri bat deritzeaio. Bere personalidadearen goraberak aldakorrak dira oso. Itz bitan, Mendoussek, gozoko anarki bat ikusten du gizaroan.

Bühler'en ustez gizaroa egoera basati bat da. Bere almen guztien gelditze bat bezela gertatzen zaio eta arinkeria, ondoeza, asarretasuna, zerbait egiteko asmoa ta alperkeria ditu lagun. Mutikoak berak ere estaki zer nai dun. Bühler'ek onela aletzen du au: organismo guztia gorputziziti eltzearen morroi dagolako.

Guztia au agertu nai dutenen joera illun eta sakonen azalpen bat besterik ezta. Esate baterako, armegintasuna. Agerraldi ontan ia ia gorputziziti eltzearen mugara iristen da tagaztearen arazoetan leku nagusia betetzen du eta bere barnean ematen dizkion bultzada gogorak minbertzen dute; ezpaitaki oraindik nola oinperatu. "Ni" ren gogozko alderdi batzuk besterik ez dira guziak.

Baña ez degu puztu bear geiegi azkorraroaren agerraldi au. Emen esan dan guztia egia da, baña askotan gizarodunak bere arazo guztiak aztu egiten ditu ta bere adiskideak billatzen ditu. Normala bada bederen.

3) GAZTAROA

Agerraldi onen asieraren eginik bereziena, zera izaten da, gaztea bere baitan berekiko gogartzen asten dala. Gaztea bere baitan tolestatzen da eta bere burua aztertzen du. Eta bere bizitzaren arazoa arkitzen du. Au personalidadearen gogortze bat bezela artu bear degu. Beste egin bereziak egiztatzen dute. Bildumak edo kolekzioak egiteko joera, gaztearen izakera familian... batzuk politikako, erlijiosorako edo ertirako eginai izugarrietara itzuliz, besteak adiskidetasunak sendotzen eta sakontzen edo jolasetara edo liburuetara jarririk, etorraroako elburuak antolatuz edo liriko olerkiak idatziz. Onela eratu nai bere personalidadea gazteak, besteak ainbat artu dezaten beartuz.

Eta gazteak aski arkitu nai du bere burua orotako. Zerbaitek, beste bateri laguntza eskatzera beartzen badu, beretasun kontua mindu edo egiten da. Au da agerraldiaren nolatasun nagusia: "askatasuna". Eta aldi onen azken al-

dera bere personalidadearen sentimentu au irmitzen dijoa ta askenean besteak aĩñaxe dala konturatzen da ta eztauka- la zergatik beti gora iñori begiratu bearrik. Denak berdiã ~~ñak~~ ñak izango zaizkio ta danakin itzegin al izango du, ta berak bezela egin ere egiteko guzia. Gero gizartean sartuko ta ikusten duan guztia egingo du.

Gaztaroan esnatzen zaio bere arima eta erlijio- ko, politikako ta moraleko sustraiak susmatzen ditu. Apeñ- aldi ontan ulertu ta maitatzen ditu gauz guztiak. Eta asko- tan gazteak, gauza auetzaz gogai berriak dauzkatela uste du- te, imitatze besterik egin ez arren. Askotan gañera itsusi- tu eta golegiztu egiten dituzte gauzak; baña ez dute ajola- rik ematen.

Gaztearen beste nolatasuna, auxe da, bizitzaren elburu bat eratzea. Artzen dun elburua persona batengan ik- kusten da, bere ikuspenean persona orri akats guztiak kenã duz eta persona orren egokitasuna onetsiz. Onela bere bi- zitzza zainduko du ta lan guztiak elburu orren alik kide- koena izateko egingo ditu.

Esneola'tar Anastasio.o.f.m.
Arantzazu.

.....

AZKOR-ARO	--	Edad evolutiva
GIZATIAK	-	Humana
BIZIZTIAK	-	Biológico
GORPUTZIZTIAK	-	Fisiológico.
AFIMIZTIAK	-	Psicológico
BELAUNDAR	-	Hereditario
BARRUNSASI	-	Complejidad interna.
AGERRALDI	-	Fase
MINTZOGINTZA	-	Aparato bucal
BATUZI	-	Individuo
AHEMEGIN	-	Sexual
EGINKONTU	-	Estadística
BIZARRARO	-	Pubertad.

KATEKESIS ETA ELIZKETA

Egungo katekesis, Liturgia edo Elizketa'ko itufi garbi eta narotsuetara geroz ta geiago urbiltzen dijoala edoziñek nabaitu lezake. Au dala-ta gure gaurko idazlanak berri usai darama.

ARRISKU AUNDI BAT

Azken urteetako Eliaketaren joera izugarriak kristau-ikasbidearen irakaspenari arrisku aundi bat sortu dio: Elizketaren ikaskizunak eta kristaudotriñarenak bereiztea, alegia; orain arte beintzat, biak bata bestearengandik aldentuta bizi izan dira, eta bereizte onek ez dio onik ekarri ez batari ez besteari. Elizketa fededun geientzat ulergaitz eta katekesis aren berotasun ta argirik gabe, otz eta atsegiñik gabe ikasleentzat. Ondorio auk etorri zaizkigu bide oker orretatik. Kristau ikaspenaren elburua ez da teologutzok formatzea soilki, baizik kristau-gogoa arimetan ixurtzea gainera. Bestaldekik, eliaketaren zeregiña gizarte-arazoa da; ots, zerenari ta otoitzen bidez erriari eskutukiak adieraztea.

Au ola izanki, zergatik ez biak alkatu batasun ori ain errexa izanki?

Ortarako bide bereizi eta egokiena aukeratu baño len azter ditzagun aldaurretik bi gauz oek:

- I.-Elizketaren izakia,
- II.-Aurraren izakia.

Elizketaren mundua, mundu berria da kristau soil-

entzat ta edozein gizonentzat. Ez du zer ikusirik oraingo gizadiaren oitura ta iakintzakin. Bere izkuntz, keñu eta burutapenak ez diote ezer esaten gaurko gizonari. Benetan da mundu izkutua! Elizketaren adierazpena ulertzeko ikaskizun berezi batzuen bearra degu: Judu-erri ta kristau-erri z-destia, ta batez ere Idasteunaren ezagupen sakona, eta abar. Orregatik kristau ikasleak, lanari ekin baño len, egi onezaz jabetu bear du: Liturgiaren edo Elizketaren ulertapena civilizaziño ez-ezagutu baten ezagupena bezain zaila dela.

Emendik ikusten degu argi ta garbi fededunak mundu ori ezagutu nai ba dute kristau-ikastapenaren (katekesis) bearra dutela. Ez da ori egun bateko lana, urte askotakoa baizik, eta lenbailen, gaztearoan, asitzen bada obeto.

Baiñan irakaspen ori gizon mardul batentzat ere zaila izanki, nola amar-amabi urteko mutil koskor bateri asieratu gai sakon oietan? Ez da ain zaila izango bere sicologia begitan artzen ba-dugu. Aurra ta gizonak ikuskizun berdiñak ikusi arren ez du arek onek ikusten duen ero ikusten, bere onurari dagokiona baizik. Omura!, orra eman aur-ikaskintzaren lege oinarritsuena, ezin aztu litekema. Lan alperra aurrari atsegiten iakoen kizunak presentatzen ez ba zaizkie.

Orregatik Elizketa bizitzen ikasleari asiarazteko, geldiro-geldiro, bere onurari dagokion neurritz, agertu dago gun eliz-zeremoni, otoitz eta gauz lilluragarriñ adierazpena; Batez ere berari arritzen diotenean. Irakaspen ometan cartu gaiten ikaslea ez dala edozein mutiko, fededuna baizik, grazi-asiaren jabe.

BIDE EGOKIENA: KRISTAU-IRAKASPENA.

Begi aurrean dago asieratze ontarako bide egokiena eguneroko kristau-irakaspenan edo katezismoan Elizketaren azalpena ematea dela. Baiña eman galdera bat sortzen da: azalpen edo adierazpen ori nola eman, gañeroko dotriñ-ikaskizunarekin batean edo bereizita? Nere ustez, oberena da biak alkartu ta funditzea, beste ikaskizunak liturgi itzen bidez erakutsiaz, aldan guztietan. Begi eman azkeneko itzeri, oietan baitago lan onen mamia.

GAI BEREZIENA: ELIZ-LIBURU EDO MISALA.

Gai berezi bat degu Katekesis elizketaren bidez erakusteko: ELIZ-LIBURUA edo MISALA. Azter ditzagun, begien oratarrez bederen, lisalean arkitzen diran aberastasun ondogabeak.

Kristau-ikaskintzaren kutxa amalgabea deitzen dio Gomá Kardenalak misalari. Inun baño obeto bere orrietan nabaitzen da Elizaren eta Jainkoaren bisitza ta gogoa. Ain agertzen dira edertasun berriz ornituak ta bizitasunez beteta Jesus eta Mariaren izkutukiak.

*Oraingo Katekesis-Ikasgintzak dogma-Katolikuen egi oinarritsuenak misalagandi aditaldu ditu: Santuen Alkartasuna, Irutasun Deuna, Betiko Bizitza, eta... Ama Birjiñaren mezarekin mariologi-lan eder bat egin dute.

Nundik datorkio misalari aberastasun ori Kristau-irakaskintzarako? Bere oinarriak ezin ditezke sendo ta garbiagorik izan: Idazteun eta Tradiziñoaren zatirik ederranakin atondua dago. Alde batetik Idazteunak, Elizaren Irakaspenaren iturri ondo gabea, ta bestaldetik Eliz Gurasoen adierazpenak itz-deuna azalduaz, misalaren irakastasuna Kristau-errientzat egokiens egiten dute.

Ez al-zayo arraxago ikasleari izango iturburu onetan arkitzea irakatsi bear duna, beste bizitasun gabeko idazkietara jo baño len?

Argitu dezagun oraiñarte esan degun oro adibide onekin: BATAIOA zer dan adierazi bear diogu gure ikasleari. Ortarako Eliz-urtearen denbora onenak Garizuma ta Pazko-eguna dira. Aro ontako Eliz-irakaspenak kristau-gai zira-nentzat, batayo-aurrean, egiñak dira. Pazko-egunean artu bear zuten batayoaz eta onen ondorioaz mintzatzen dira geienetan egun oetako Eliz-otoitz eta irakaspenak.

BATAYOA ZER DAN azaltzeko kutsatu ditzagun teologi-irakaskisunak Liturgiarenarekin: Garizuman, Pazko-bijilian eta batayoko egieran arkitzen diranarekin. Orrela gure itzak gogoz ta biziz betetakoak izango dira, ez teologi-irakaspen utsa soilki.

Orra emen aitatuñako otoitzetik ateratzen diran

ikaskizun batzuek:

BATAYOAK OBENA GARBITZEN DU.- Adierazpena: Ugaldea
"Mundu guztiaren obenak garbitzeko, ujol aundia bidali ze-
nun, pizberritze au adieraziz, ur berorrek gaiztakaria gal-
du sezan eta ontasuna ekarri". (Batayo-uraren bedeikatzea)

BATAYOA JAYO BERRI BAT.- Adierazpena: Irazapena "Ja-
inkozko ur onen sabel txit garbian erne dana, zerutar jayo
bedi". (Idem).

BATAYOAK ASKATU EGITEN DU.- Adierazpena: Itxaso Gorria
igarotzea. "Aldegin beza deabru maltzurak. Ez bedi nasi emon
bere kutsurik, ez bebil egan inguruka, ez bedi murgildu izku-
tatzeko". (Idem).

BATAYOAK EZIN KENDUZKO MARKA BAT EZARTZEN DIGU.- "Ar-
zazu Gurutzaren zantzua, bai bekokian, bai biotzian". (Batayo-
ko egiera). Ta orrela batayoaren beste arpegi ederrak era-
kusten dizkigute.

Egiz, esan bear degu amaitzeko, Eliz-liburuko meza bako-
itzak Eliz-ikaskizunaren laburpen arrigarriak direla. Berak
dakarzkiten Itz-deun, adierazpen, Alkartasun Berri ta Zarreko
edestiak, elburu bat dute: Ospatzen duten izkutukiaren abe-
rastasun guztiak Kristauen aurrean ezartzea.

Anai Mikel Santiago (Salletarra).

ELA-INDARRAK GIZA-ETORKIARI KALTE?

GERTATUEN BERRI.

1945^oko Dagonillaren 6^oan, goizeko zortzirik laurdenetan, Hiroshima izenekiko Japoiko uri batean dugu agitua. Zoritxarrezko eguna benetan! Zer-nolako zori-gaitza lartertze datorkien Hiroshima ko biztanleak balekitez... Goizaldutako egun berriak dakarkien aitzitz nagar-garria gutxi bai-dute igarri, errukarriak! Askori gertatzen saie sarritan esan oi dan-au: jaikitze-rakoan, berriz oeratzetik izango duzuten, ikusi. Bai; egun-sentia askok dute ikusi beinbetiko arratsaldetzerik al ikusteke. Zer dala-ta? Miñaren miñez, baiñan dasaizuedan gertatua. Gertapen samingarri onen berri ainbat bider entzun oi duzute noski, baiñan oni buruz zertxobait idazlan onetan aipatzea erazko zait.

3000.000 biztanleen uria dugu Hiroshima. Bere zeru urdiñari tarteka-marteka an-emen odeixka banatuak nabari zaizkio. Askotako goiz-giro ederra. Alako batean, zortzirik laurden edo ziralarik, goiz lenaren ixiltasuna urraturik egazkin burrundalari bat dager. Jira-bira azkarrean, ortzegoian bereala izkututzen da berriro. Bere egitsaria beterik du noski. Une gutxietara, lurra zala-

part gorrian, danbateko izugarri batek astiñazten du. Guztiz ondale, lertzearen berotasun kixkalgarria, itxugarri ta errekor argitasunarekin zabaluzero aundian eraturikan bat-batean ere. Baiña, ezpai gabe, bizdunentzat bildurgarriena ta kaltekorrena, aipaturiko ela-indar-irratikorra (radio-actividad), alegia. Ezen... ta gero..., zer dakugu? Kupidagarria benetan!... Illarekiko ixiltasuna beran... Zeru lañotua goian iltoki-aundienaren sapaitzat... errauste beltza alderdi orotetan. Ura ondamendi! Bai betiko gogoangarri izango dutela Hiroshima-tarrak!

Lurretik bosteun neurkiñera lertu izan arren, bere ingurumari egiketa osoan (radio de acción) onda-lan izugarrien egille ala ere. Zuzenki bere azpian zetzana ezerretzu; aldamenetakoak ere osoro ondatu; urrundu alaz gutxiagotu arren. Benetako su-aga lazkagarria! Ordurarteko gerrate-tan ezage zanengo izkillu lazkorrena zalako onek, bigarren ludiko guda orokorraren azkenengo urtean bai-zitzaien lenengoz agertu. Iru egun barru, goizeko amaikak bi minutuan, nazio bereko Nagasaki beste izenekiko uriari berauxe jazoko zitzaion. Bere lantegietara zihoazelarik askori, edo eskulanetan jardunki besteri, ez ustean beintzat erio-tzak idoro. Dana dala ere, bai zauriaz, bai errekiñaz, bai ela-indar-irratikorraz, bi urien artean 120.000 il ziran, beste ainbeste eriturik.

ELA-INDAR-IRRATIKORRA ZER?

"Radiactividad" esatean, ela-indarren egoztea dala, izena berak adierazten digu. Eta, izatez indar-irratikor au duten gorputzeri ere deritzaie. Onela ba, Uranio 1896 ean Becquerel-ek ezagutu zuan; Torio 1898 an Schmidt ta Curie-tar Mirenek. Orain-orain billatutako Estroncio 90, guztiz irratikorra da. Oraintsuko ikasketetan, ela-indarra len-gai geienetan Curie-tar Julian ta Mirene senar-emazteak zeindu zuten. "Rayos" alfa, beta ta gama izenekiko indar irratikorra duten gorputzen osagarri dira. Eginkortasun aundiko, indar positiboko (+) ta Elioko guna edo nucleoarenak dirade alfa zatiki deritzaienak. Beta indar-negativo (-) daukate. Alfa-renetik datozenak berriz, gama zatiki deritzaie; illunak dira,

gorputz-sarkor ta argiaren abiadura ere ba-dutenak. Hiroshima ta Nagasaki urietako ilketaren erdia zaurien bidez, beste iruren bat errekin bidez ta bosteren bat berriz alfa, gama, ta beta-ren indarrez zalakoan daude. Uri berrietan batez ere lengai quimicoak ugari arki oi dira. Neutronentzat erakarkorrek izaki, desintegrazioa dagidanean isotopo radiactivo biurtzen dirade. Ta aipaturiko elaindar-irratikorrek olan do sorpena. Indar onen irauntasuna izakai bat edo besteagaitik goraberatu leike. Izakai bat edo besteagaitik diñot alegia, cobaltok, adibidez, bost urterako, calciok sei illabeterako, zeinbatzuek berriz iru illabetarako sortu leikeala-ta. Lur-gaikiak gainera bide diranik ezin uka. Lertzea goian dalarik, ondoren era-ilkorragoak lendabizian ditu; irratikor autsa zabalkigoz banatzen baita, beste ondorenak ain kaltegarri ez izan arren. Azpin-gain, lur gañean lertuko balitz. Sendagille, bizitilari ta sortzainlariak beste askok lez, ela-suagaren ta oni darion egitzaren, lertzeak sortutariko berotasunaren, inar gorrizpekoengatik edatzen dan argi itxugarriaren ta onelako beste askoren berri ondo dakite; baiña, bizidunen ogokitso (célula) ugarikorreri datorkioken indar irratikorren influencia beren autemane-tako aurrenengo arazo dute.

GAXOTUEN IKUSKETA.

Japoiko gertaketak igaro-ta belatsu, azterketa gogorrean asi zitzazkigun sendagille ta jakitun gizonak. Azkenengo urte auetan giza-soingo gaitzai buruz, "Atomic Bomb Casualty" deritzaion batzordea ari ta ari datorkigu. Bizirik geratuen ta beren ondorengoak akatsak dituzte, bada, azterkizun. Kure errian besteriko suagatik gaizkitu ziranekin erkatu dituzte japoitar erituak. Ta au, beraien berezitasuna jakitearren. Bestelako lertzearenetik berdiñezko batez baita nabari ela-suagaren lertzea; ela-indarraren egozteaz alegia. Lertzeari indar bitarikoak lagun dagiote: gama-renak ta nuetron-enak; azkenengoak gunaren lertzetikoak dira. Gizonentzat bezela aberentzat, biak galkorrek. Aneurkiñ biko lur-barruaz edatzen lendabizikoak, lertzearen lenengo minutuan. Bigarrenak berriz, batbatean, kilometro bateko

egiketan. Nagasaki ta Hiroshima urietan aneurkin bateko lur-biran zeudenak kalteturik gelditu zira-den. Ta aueri amar urte gerora ere ela-indarraren ondorenak argiro nabarmen zitzazkien; entzun aundiko "leucemia" gaitza, maizago zuten; eundik amarrak betizar agiriak zeramazten; umen ortzen agertzean goi-bera ariñak oartzten ziran; erretako en eta elbarrituen uspelen iraunkortasuna ere, ezaugarri argia zan.

GIZONAREN SORTAZIAK

"Genes" deritzaien jaiotz-egillek gizatiar endakian ugariak dirala esan bearko. Gizon eta emakumearen ogokitso-ugarikorren berrogeitasortzi "cromosoma" artean larogei milla baño geiago, berrogei ta lau milla biko bait-dera apika Tange-kemp-ek dionez. Guzti auek, "genotipo" itzaz adierazten dira. Giza-ondorenari buruz, berriz, jakitunbillaketak zail dira. Erljio ta gizarte aldetik eragozpen aundiak topatzen bai-dituzte. Ala ere jakintsuak etzuten etsi. Nolabait japoitarren gaitzak ezagun bear zirala-ta, bide motzenari ekin zioten ipar-amerikarrak. Jakiña, gizona ere astigabea baita, ta eraman gutxikoa bestetik, japoitar ondorengo en berri jakingarriak ezagutzekotan ogei ta bateko gizaldiari etorri zai egoteko; baño korapilloa askaturik zen. Geroztik, sendagillari beren autemanetan, aberek bide berriak irikiko dizkie. Abereak bai-dirade beren lanetako gai bereizi.

IKASKETAK

1946-ko ikas-jardunketak itsas zaba-lean dituzte. Lertegitik urbil dagozte ontzi-altzairatuak, saldi sagutzar, urde, ta bestelako abereak dituztelarik. Uztaillaren lenengo egunean lurretik lareun neurkiñera lertu zan bat; il bereko 28-an bestea, urpean. Astintzen asi ta, bai astindu ere arrexek. Kaizuz seireun neurkin izango zituan milla zazpireun neurkinera igo zan zurrunbillo izugarri ura. Aurrenengo lertzea baño kaltekorragoa zala esan bearrik etzegon. Aneurkin bateko biran zegozten ontzi-altzairatuak, ur-jautsian erortzen zan itxas-zatiak, errex ondoratu zituan. 147 urde, 57 zaldi ta 3.000 sagutzar, lertzearekin batean il ziran. Abere aiek aztertzean, irratiko in-

darra batez ere, umezketarako kaltetsu zala bai laster asko igarri ere biziztilariak. Indar onen bidez emcaren sortazia bereala il diteke; edo bizi-rik bada ugalkaitz geratu bestela. Ugaldurik balitz aldaketak nabariko litzazkioke, ala ere bigarren ala irugarren gizatza bitartean ez. Txori, arrai, ugaztun ta beste ezurgabeai burnoa (embrion) a-rauge biurtzen zaie indar irratikorren bitartez. Illean, azi-aldian, bizkeran aldaketak ere nabaitzen zaizkie. Landare artean ere, indar onen eragitea ezaugarri zaigu. 50.000 landaretik zazpi berdinezko arkitu dizkigu Hugo de Vries ek. Gero beren berexitasun au batek besteari ondoreka ekarri litzazioke. Lertokiko arraien artean, endaki berriak sortu ziran; eredu bakarrak ote diraden diote.

GIZONAGAN ZER?

Gizakietan agertu dituzten egi-gaiak batera jorik, garrantzitsuenetako bat edo beste azaldu genezazke. Japoitarren eta beren ondorengoan irratikor-gaitzak arau zituztelarik amaika urte geroago, Dinamarka^{ko} uri-buruan, berderatzi erri aldetako ogei jakitun bildu zitzaizkigun. Bere ikas-lanetan gaurdaño jardun dira. Orain arteko erabakiak aipagarriak badira ere, zeatz meatz ezin dizkigute azaldu oraindik; argiro jakitekotan, nunbait, datorren gizaldiari itxoin bear.

Gizonaren sortaziak ziara suntsitzen ditu indar-irratikorrak suntsitutakoak, sortazi amak ba-l'ra, betirako senge litzake gizona. Eunka japoitar azterturik iruren bat elkorra ziurpetu zuten. Elkortasun au illabete batzuen gorabera izan liteke. Emakume berak damaigute, bada, beraren oar-ikaspena. Emakume berokiek azaltzen zizkiguten elkortasunaren ikurrak: Gizentasuna zala, edo biotzkadak zirala, edo berotasunak aurpegian. Illabete batzuen ondoren, beraretasunera itzuli ere bai.

BERTIZ ETA GAIKZI ERATUAK.

Bestelakoan oiezkoekin erkatutzen baditugu, aldaketa ariñak dagerzte, oraingoz, beintzat, gizon, emakume ta japoitar umeak. 40.000 umeen ezagutzak oargi auek damaizkigu; irrati-gaitzeko guraso-seme artean; euneko bat berrogeikin

(1,40-). Ta jasan etsutena gurasoen seme arauge artean, eunetik bat emezortzirekin [1,18-]. Russel-ek irargitu duanez indar -irratikorra = espina bifi da, microftalmia, colodactilea, cologoma, ernia cerebral, imperfección del ano, odonefrosis, oligodactilia ta polidactiliaren bide da. Errezagoz gaizki-eratu lesake burnoa izorraldiko txarraldietan. Emakumeari gizonetzko jaiotsak, ein geigoz gutxitzen zaizkio. Jakitunak onela irargi dituzte beste asko ere.

LATZIRAKA, MANUEN SORKARI.

Ela-indar-irratikorra gizakiko sortasien kalte bada, ez gutziago latzikara. Alemani an etziran ela-suagak jautsi, ala ere pakealdian baiño geiago mamu-umekiak. 1938-an millatik bat seikin ziran (1,6 l.000). 1950-an berriz, millatik amar (10 l.000). Emakume beroien aitorez, kalte oien etorburu, igarotako aldi gorrak diranik ezin uka. Latzikarak mamuek sortutzen. Ama baten izoraldian, izu bat naiko askotan bere umekiak akatsaren bat bereganatzeko. Adibidez, or dijoakizue gertatu zen bat. Tximizist argiaren dardarra jasan zuan aurdun emakume batek, argi-untzirik, argi-bonbillak ateratzean. Alegiñak egiñagatik, dardarak iraun zun bitartean, ezin kendurik geratu zitsaion beatz aundi urrena. Argi untziari itsatsia bait-zeukan. Azkenik, aldi txar batez, zentzue gelditu zan, lurrera erori zan, eta onela aske arkitu. Aur izateko garaia ipitxirik, neskatxa bat izan zuan. Baiñan, amaren atsekabea, bere alabaren beatz aundi urrena ta txikarra etzituala ikusirikan, naiz besteak akats gabeak izan. Ta onelako asko esango nizkizueke, baiñan ez det luzetsi nai. Askok desaten "psicosis de espanto" kalte-gaitzen etorburu ez ote?

ERIoTZ-EGUZKI.

Izu aundiagorik bai ote ela-suagaren lertzea ikusitze baiño? Ilketa aundienetakoaren aurrez, latzikara nai ta naiez izan bear. Oroi gaitean eta ikusi. Berealaxen egiten da guztia. Oroi bai. Lertzearekin zabaltzen dan argi dizdikorra... Japoitar gaxoeri begiak zaitu nairik, aurpegira igo dituzten bots beatzaren aztarna uzten dien argi indartsua. Japoitarren eriotz-eguzki... Iru milla neurkiñera igotzen dan urdiñarrezko lañoa. (61'gn. orrialdean jarraitzen du).

CHARLIE CHAPLIN'EN ZIÑE-NORTASUNA

Ameriketarren erara estadistika bat egingo bagen du, barrerik geien eragin duan ziñe-mutilla Charles Chaplin izango litzake, arean. Gizon orrea arpagi zelebre ta bere jantzikera nabarmena barregarriak izan benetan. Ia bere ziñe-zinta guztietan zelebre-zelebre azaltzen yaku.

Beste estadistika bat egin ezkeru, negarriak geien eragin dauan ziñe-mutilla ere, Charlie izango litzake, non-baiten.

Chaplin'ek ondo ezagutzen dau gizonaren biotza. Barre-santso baten ondoren negar-arpulo lodi-lodiak ateratzeko ondo daki zer egin bear dauan. Charles artiata arri-garria da. Ziñe-landan sortu dan olerkaririk onena; Olerkari(itz au oso-osoa artu badei) "bakarra".

Charlie Chaplin, adimen sundiakoa da. Goitik beerrano ezagutzen dau gizona. Bere ama zanak erakutsi ei eutsan "gizona ikasten". Eta Chaplin'ek adimen-begi zuurragaz, gizonaren arima ta gorputzeko zirkin guztiak axolaz ausnartuak ditu. Ederto daki zer atsegin yakon edo ta zer erdefiatu egiten dauan. Eta berak nai dauan sentimentua sortzen dau gizonaren biotzean. Eztago beretzat ezkutubik. Esate baterako, aurkatasuna edonori yako gogoko. Negar malko baten ostean barre-algara daragian zelebrekeriak biotza askatu egiten dau ta eder egiten yaku. Txarraren ta onaren burrukea edo aberatsaren edo txiroaren aurkaka edonori gustatsen yakona da. Itsumustuko jasoerak be gizonaren gogo batekoak dira, eta Chaplin'ek ondo daki. Beti aleginduko da, inok uste eztsuana egiten, ots, kalean bear badoa, danak uste dabe olantxe oñez jarraituko dala, ta alako baten, kask!

tranbira igotzen da. Inork ez eban ori itzaroten ta biotz-kili-kili bat eragiten dau.

Charles Chaplin'en filmetan gustia ondo neurtuta dago. Barre larregi eragin ezkerre aspertu egiten da ziñe-ikuslea ta gero ez barre ez negar; adore barik gelditzen da. Uste hako gertaerak be, neurri barik izan ezkerre, lauskitu egiten dabe biotza. Bere ziñe-zintak, adimen zorrotzaren ezeugarri, neurri atsegingarrian atonduta dago. Baiña ez adimen utsez; bere olerkari kutsuak udabarriko eguzkiaren argi yoria zabaltzen dau bere film atsegingarrietan; lore usaña, olerki usaña...

Charles Chaplin'en nortasuna beti edertuaz joan da. Keystone Kompany'n isar xengle agertu-barria dogu. Bere lanerako griña aundia, ostera; amar illabeteen ogei ta amsbost ziñe-zinta, labur-erakoak, egin zitun. Lenengo amaiken zuzentzaille egiten etzan ausartu. Gero bai, gero Charlie bere filmetan dana dozu bera: idastzaille, ziñe-mutil, zuzentzaille...

Beste amar illabeteen Essanay'ko ziñe-merkatzaillekaz amalau ziñe-zinta argitu ebazan: "Charlot vagabundo", "Charlot, en el teatro" eta "El presidiario" dira onenak. Chaplin ia gallurrerantza urreratzen da ziñe-zinta onekaz.

1916 beste tratu bat; orain Mutual'eko ziñe-merkatzalleekaz.

Charlie Chaplin, bere aunditasunik audienean dargerkigu, oraingoan. "El bombero", "El Vagabundo", "El conde", "La casa de préstamos", "La calle de la paz", "La cura", "El emigrante" eta "El aventurero", Chaplin, maixu betearen diñak dira, arean. Trajedi sena argi azaltzen da onetan eta gizar-teko makurkeriak ederki muxintzen dauz. Bere olerkari izarra dizdizlariago da.

First National'entzat egin zitunek zertxo bat gei-ago dauke: bizitasun gei-ago, sentimentu ta poesi gei-ago... Ara batzuk: "Vida de perro", "Armas al hombro", "Charlot, en la granja", "Dia de juerga", "El chico", "Dia de paga", "El peregrino".

Baiña baditu beste iru, ta zelako iru!, txukunak, zoragarriak, arrigarriak; "La quimera del oro", "El circo", ta "Luces de la ciudad". Beste onelako iru egitekorik ezta

sortu, ezta sortuko be.

Charlie Chaplin'en filmetan badago, ostera, beste ezerk beteko eztauan utsune bat. Charles adimen aundikoa dala esanda dago; bere ziñe-zintak ikustea naikoa da... Olerkaria be, olerkaririk badago, bera da. Biotz xamurrekoa, maita-bera, zoritzarrekoekaz errukiorra... Bere "Candilejas" giza-maitasunaren abestia da. Chaplin'en filmak, ordea, Jainko-utsa dauke. Bere ziñeetako notin asko Jainko indar gabe, on antze-koak izan arren, argal agertzen dira. Eztira oso-osoak.

Charlie'n karidadea, ezta karidadea filantropia baizen. "Edo kristiñaua izan edo judiyoa, daneri laguntzea litzake nire atsegiñik aundiena", diño: guztieri lagundu, zein baltzeri zein zurieri. Danok daukagu alkar laguntzeko gurari bizia. Gu zibilizatuok alakozek izan. Alkarren-zorion iturritik xurripaka bizi gura dogu ez bata bestearen atsekabeetan loitu. Eztogu alkar erdefiatzerik edo gorrotatzerik gura. Mundu onetan danontzako dago tokia. Lar ona aberatsa da, ta bakotzari bere janaria emon leikiona. Bizitzako bidea librea ta ederra izan leitekean, baña gizonok galdu egin dogu bide ori. Belozidadeak pozoiu egin dau gizonen animes, gorrotozko laño baten bildu da mundua, ta odol eta mixeriz jantzi gaitu. Belozidadea geitu egin dogu, geu mirabe gelditu, ostera. Jakituriak lotsabage biurtu gaitu. Geure adimenak biotz-gabe egin eta animali izateraño jaxi. Mekanizaziñoa baño espiritu giza-maitalea beiñago yaku. Ezta adimena bearrrean doguna, zuzentasuna ta maitagarritasuna baizen..." ("El dictador", 1940, Charles Chaplin). Au dana filantropi da; Jainkoa falta, Jainkoa, karidadea izateko.

Chaplin'en itzaropena be oskol mamín gabea da, ta bere fedea..., Jainko gabe zelakoa diteke bere fedea?...

Utsune auxe, Jainko arloa, alegia, ixildu ezkeru, Charles Chaplin'en kidekorik ezta sortu. Bere ziñe-nortasuna arrigarria da benetan.

"Un rey en Nueva York", da bere azkenengo filma. Oraindiño eztau izan agertaldirik. Dana dala, aurten ikusiko ei da Londres'en. Jentea urduri ei dago, nolakoa izango dan

edo eztan. Ik'asi daben batzuen eretziz, badauko piper apu-
rren bat IparAmerikeko asoziazioen kontra-edo. Ziñe-zin-
ta onetan be, beti bezela, Chaplin, bera dozu idatzalle, zi-
ñe-mutil, zuzentzaille, "musikalari",...

Irurogeita zortzi urteko agure onek, zazpigarren
arteari emon deutson guztia, iñoiz ezin aaztu deiteke. Char-
les Chaplin'en ziñe-nortasuna iñoiz izan danik aundiena da.
Zineak, arte bezela, gizon onexeri zor dautso guzti-guztia.

Jon Kepa Guarrotxena (ofm)

Arantzazu'ko teologari

(57^ogn. orrialdetik dator)

Amabost aneurkiko goi-beran ta bosteko zabalean.
edatzen dan odei-pill irazeki ura... Lertzearen
ogei milloi mallako berotasuna... Dana da izuga-
rri. Dana bildurgarri. Copenhague-ko bilkuran
giza-ondorengoan gaitzak aztertzean gogoan ditza-
tela batzarkideak japoitarren une latzkor aiek.

Bengoetxea-tar Pedro Mari Anaia

Villaro-ko Sakramentinoa.

ARANTZAZU- EUSKALERRI

"ARANTZAZU" POEMA N

AINTZIN-SOLAS.

Poema batean, yarsmonik egin gabe pasa ez diteken arlo bat ba-da: bere batasuna. Gure onetara etorriaz, A. Mitxelena-ren poema onek ba aal du batasunik? Au da lan onen zeregiña, eta onatx nire eritzi apala.

1. Leen-aldia. Eusko erdi-aroa arantz-onatz dabilkigu, izar gidaririk ez baitu. Leenen-aldiak Aro onetako euskal-ibillerak dagerskigu. Azkenik, Errodrigo dator bere "Arantzan Zu?" ezpañetan duela, eta berealaxe leenen ermitagintza.

2. Bigarren-aldia. Askotan esana da "Arantzazu Euskal-Kalbario" eta kondairak ere berebat diosku. Arantzazuren "Kalbariotza" au dugu bigarren aldiaren muiña. Poemaren zati oni "bigarren ermitagintza" deitu diot.

3. Irugarren-aldia. Azken aldi au "Eusko-Gogoan" argitaratu zuten, 1955'gn urteko azken zenbakian. Benetan biotz erdiragarri! Bera irakurtzean, negar-malkotxo batez iges ere egin zidan niri beintzat... Lan onetarako ez dut gogoan izan irugarren aldi au. Bera argitaratu aurretik idatzia baimuen. Nik, "bigarren ermitagintzaren" yarraipena edo "gaurko ermitagintza" esango nuke.

Nire lantxo apal au A. Mitxelena-ren poema irakurtzeko bide-lagun ona gertatzen bazaizue, bapo naiz. Ola izan dedilla.

I. EUSKO ERDI-AROA.

Arantzazuk gure errian izan duen garrantzia ikusteko, agerkuntzak aurretik daramaskin mende-yokaerak ezagutzea bear-bearrekoa dugu. Ikus dezagun, ba, gure erdi-aroak zer aurpegi derakuskigun.

Berrionaren leenengo mixiolariak gure lurrera eldu ziranean, sekulako arrera zitaila egin omen zieten gure a-sabek. Bai gaitza euskaldun aien kristaugintza! Kanpotik baziran ere euskaldun aien izakeran sasi-yainkokeriak siñeskeri asko itsatsiak zituen. Andik gizaldi batzuetara, siñeskeri ok berpizturik ta indartsu agertzeko, baten batek egur igarrari sua urreratzea aski izango da. Onela yaioko zaigu sorginkeria bere egite deabru eta lotsagarriekin.

Ta sasiyainkokeri berri au zer da ta mundik etorri zitzaiun? Ona A. Luzuriagak zer dion: Prantzitik etorriko Endo zeritzan bat izan omen zan leenen sorgin-buru. Au bide, Naparroko Baztan ibarrak izan zuen Akelarre ospetsuena: Zugarramurdi.

Sorginkeria ez zan Euskalerrikoa bakarrik, ez; ia sartaldeko Europa guziak berekin zuen gaitz au. Ala ta guziz ere, gure lurraldean ugarixeagoak eman zituen azi txar onek. Ikus: larunbat illuntzetan izan oi zituten sorgiñek euren batsarrek. Akelarreetan deabrua agertzen omen zitzaien eta berari egiten gurketarik naskagarrienak. Akelarrea zetosen sorgingai guziek Yesukristori uko bear zegioten. Sorgin batzarra dantza lizun batekin bukatzen zan. Sorginkeria zan Euskalerrian yaun ta yabe. Au ikuskizun negargarria!

Eta poemak zer dio onetaz? Elkarrizketa luzetxo baten trebeki abesten digu orduko Euskalerrriaren egoera: euskal-fedea bidasti dugu. Erromes-bide makurrenean -yentil-arroa- gailurreruntz doa. Bai ibilketa latza! Arkaitz artean: alde batetik leize ezezagunak, bestetik malkor eldugaitzak, eta euskal-Siñesmena an doa izar gidaririk gabe:

"Jentil-aroko atzea, - erromes-bide luzes.

Erromes-bide luzean gora, - bidasti euskal-fedea.

Arbidearen luzea! - Jun-bearraren nekea!

Gaitzena, aiare, joan ta joan - ta azkena ez ikustea".

Lentxoago gidaririk ez zuela esan dut; baña onen bearrean ba-zuen lagun bat, eta nolako laguna! Marigaizto. Anbotoko Señora ta Aizkorriko sorgiña, bi izen ok ere ha-zituen. Marigaiztok onela die euskal-Siñesmen erromesari:

"Ez da Euskalerrin neri burua - makurtuko ez didanik,
Bearko ik ere kristau-erromes; - aitor nazak ik ere, ik.."

Ta erromesak:

"Nik ez zaitut aitortuko - naiago nuke naiago,

Nere burua bertan amildu - zure mende lotu baño.
Aloña orretxen gallen - beste Andre bat sorturen.
Zure jauregi gezurrezkoa - oinpean Ark zapalduren".

Bai ondo somatu euskal-Erromesak Amaren etorrera;
baita Marik ere:

"Ammorro beltzak artzen du - ta an doa Mari su ta fu".

Euskal-Fedea ta Ama aurrez-aurre ikusi diraneko-
an, Euskalerrik Erdi-aroa otxo ta aro berri bat asten du.

II. - LEENENGO ERMITAGINTZA.

Gaur-eguneko idazlan geienek tesi bat izan oi du-
te; gure poemarena beretsi nai badezu, ermitagintza esan be-
ar. Baiña zer da, ba, ermitagintza clerikariaren asmotan? Ona:
gure Erria garaia etorri zitzaionean, ez zan, egia esateko,
kristau-oiuren eredu ain gardena. Bai zera! Ba-zituen ordu-
an gure Erriak beste yokaerak. Ermitagintzaren eginkizuna
erro gaizto aukerak barne barnetik ateratze izango da. Gero,
Euskalerrri Arantzazaturik, penitentzigille ikusiko dugu.
Azkenik, Iñigorekin, bere biotz-muinan euskal-odolez pil-pil
dituen Iñigorekin, Santu bikain eta lerdan ageruko zaigu. O-
natx Arantzazuko ermitagintza-miraria egiztaturik. Au da
'Arantzazu' poemaren muña. Ken poemaren izar gidari au eta
ara batasun eta bizitzarik gabe, illa.

Baten batek galdu dezake: bai ori dena ederra duk;
baiña Santutegiaren dizdirak Euskalerrrian orrelako zeriku-
sirik izan aal dik? Poemak baietz dio: Erri dena Amaren e-
sanera dagerkigu. Euskalerrriko Eliz-gizonak -Iñigo, Zumarra-
ga...-, itxas-gizon eta gudariak -Okendo, Elkano, Legazpi-.

Erriak ere ori bera digu: Kofradiak, erromesek, e-
ta azkenik, baita kanta-zarrek ere. Gaiñorontzeko Santutegi-
entzat ain urri izan diran erromantzeak, Arantzazuk ausarki
izan ditu.

Benetan euskaldunaktxoko ura beginini izan dute,
Amak dionez, an baldute beren euskal-Eliza:

"Nere euskal-seme askok - emen izango dute ostatu,
Izango dute ostatu eta - euskal-Meza non opaldu..."

Bai maitagarri ta goxo onelako Eliz-ostatuak! Au
da Arantzazuren zerikusia.

Arantzazuko Amak zer albiste ekarri zigun?
"Eidazu ermita bat - (esaten danori),
Ama-seme izango - gera-ta zu ta zi".

Ta ez arrizko ermitatxoa bakarrik, batez ere ari-
ma ermitagintza. Arri-ermitagintza aren gain goi-ermitagin-
tza sana ondo ulertu zuen Euskalerriak:

"Zenbat gizaldi Aloñan gora - Birjiñaren esanera!
Ark esandako ermitagintza - alik oro egitera..."

Amak eskintsa txasur bat zuen: neres izango zera
zu; ara Amatza Euskalerti kuttunari eskiniñia. Ordurarte, eus-
kaldunok Birjiña, Andra-Mari bakarrik omen genuen; baiña
Birjiña Bera etorririk, Ama agertu zitzaigun. Berak bigundu-
ko du gure garbi-aroa.

Pakeal Onezas ondo urri gure lurra egun aietan.
An da Amak ekarri zigun leengo zer-doia. Euskalerriko men-
di-ibarretan ba-ziran ansikakxo jaun-gastelu, gorrotoen ka-
bi ta suspertzaille. Anek nola kanpatu? Amak erri-aalgoa
indartu ta yauntxoak errintu egingo ditu: ta miraria zer-
turik. Batez ere kofraditarren bidez egin zan paketze au;
Ganboe ta Oñaztarrak onek batu zituen. Aspaldian ukabilka
zebiltzan Murgi tar Gartzal ta Garibai tar Martin buruzagi-
ak onek besarkatarazi zituen.

Marigaitzo! Aloñan ere ba-zuen Marik bere yaure-
gia: Gaiztozulo. Ama agertzean, leen esan dugunez, igesi joan
zan. Baiña ez zan dena errekin bukatu, geroxeago Arantzazu-
tik irtengo dira mixiolariak, bere seme berrien errukiz,
Amatxok bidalirik. Prantzee-euskaldunek orrelakorik izan
ez zutelako, andik gizaldi berdira ere oraindik berekin
zuten sorginkeria. Sendaketa ondo garratza suena: Gobernuak
bidaliko De Lancre zeritzan batek, odolketa ikaragarriak
egin zituen euren artean: emakume, gison eta apaiz, danetari-
koak urkamendiratu zituen. Ama goxo bat falta! Euskal-fede
erromese miretsi ziteken, bai, Amaren agerkuntzan:

"Andra-Mari!, Ave-Mari!, - biotz minduaren sari..."

Parretxo izpi bat aterpe billa - miñez datorkizunari!"

III.- ARANTZAZU-KALBARIO.

Ermitagintzaren bigarren aroan sartu baiño leen,
goazen Aloñan-gora Euskalerrik ser egiten duen ikustera.

"Euskalerrin Arantzazu, gure Kalbario Santu...
Ona Arantzazu, euskal-Golgota..." Poema-zear orrelako asko
sgeri da. Arantzazu-kondaira osoari euskal-odola mara-mara
baitario. Erri-erriak aukeraturiko Kalbario dugu; baiña A-
maren begiradaz gozatutako Kalbario. Garbi-arorako biderik
laburren eta egokienez Amarengana yestea baita.

Euskalerrri Yesusen GORPUZGINTZA osatzen ari da,
BAITZA betetzen asi da yo ta ke santutasun bidean gora:

"Gizonak sailla batean - emakumeak bestean...
Artu pekatuen daztu - Gurutze bana zamatu
Goi-errukia merezitseko - Arantzazura abiatu".

Berriro euskal-Fedea srrases dages. Baiña erabat
antzaldatus: orain elburu ezaguna ta Ama baten irrisk gida-
ritzat baititu. Serbaldan gurutze bat, ezpafiñetan otcoitza,
begietan negar-malkoak, eta bati gora ta gora penitentzigi-
lle. Poemaren kanta-zazr geien eta mamitsuenak igoeran abea-
ten dira. Nelako ausnarketa goitarrak erromesarenak!

"Pagadiko itzala - bai etsen-leku yaukala!

Arnaska, iserdiz, aurrera, alare, - gure bidazti leiala",
goian baitu bere maitea,

"Amagana-arte, atsedem-gabe, - presaka aurreratu-ala",
Maita-miñez, Amaren altsoaren irrikaz doa, eta... Amarekin
topo egiten du. Erromesak biotza taupadaka, zoraturik diotza:

"Uste ez oneko amesa, - inñolaz merezi eza!

Betorkit, o bai, ordu onean - sure poza ta babesa,
Azkenerraiño eraman zada - nere passio nekeza".

Azkenik, Gurtzipizio gafiñetik Arantzazu ikustean
biotzak ler:

"Yerusalen! Yerusalen! - Zeru ta lurrak bat emen".

Arantzazu-Kalbario emen uzten badut ere, aintzi-
ñako Arantzazuk ba-ditu berelarrantzak: Gau-bijiliak eta
Euskal-Meza batez ere. Ok Inñigorekin egingo ditugu.

IV.- BIGARREN ERMITAGINTZA.

INIGO. Baten batek gure zaindariaren euskaldunta-
suna ukatu nai izan digu. Kataluniar omen da alajañetan! Ba-
ña onoko oni A. Salbatorek ederki diotza: "Euskalerritik
"konbertituta" irten zan ezkerre, Katalunian itxaiten egote-
ak ezer gutxi esan nai du aren euskaltasuna ukatzeko"...

Iñigok berak emango digu erantzunik sendoena:

"Betiko gogoan eramango dut - nere Euskalerrri maitea,
Nere Euskalerrri maitea eta - Arantzazuko Fedea,
Arantzazuko Fedea eta - gaur gaueko mesedea..."

Errromatik idatziriko gogarteak dituzu.

Euskaldun badugu, Arantzazutar ez gutxiago: Arantzazuk indartu zituen bere Santutasun-asmoak, Arantzazuko Amak artu zuen bere garbi-zifñitza. Eliza artan Yaunagandik ardietsiriko grazia ondo gogoan duela, digu berak.

ALKARRIZKETA: Loiolako zalduna Arantzazura Errege-gauerako eldu zan. Agi danez, gau ontako bijilia berezienetakoa zan. Bijili aukeratu zanean, zigorkatzen eta abesten igaro oi ziran. Iñigo eldu zanean, euskal-Fede bidastia gau-bijilia astera zoan. Gurutzea sorbaldaturik, aintziñako pekatuak ordaintzen, leengo Garbikuntzari bukaera ematen:

- "Ermitateko bat eizazu eta - nerea izango zera zu".

- "Zure esakaria, zure eskeñia - gaur-gauez zertu nai degu".

Emen eta gau onetan ezagutu dira Euskal-Fedea - erri penitentzigilllea - ta Iñigo, bere Santua. Iñigok baditu bere asmoak; baiña oraindik ain ezezagunak:

"Lastargi-su bat, San Juan-su bat - Gau illunean piztua
Degu onako gau-bijilian - Euskal-Fede gogatsua.

Onen argira, gure Iñigoren - Santutasun-elburua

Egun-abartzen, zeru-gorritzen - argilagotzen dijua..."

Euskalerrri Amari otoitzka diardu:

"Gogo dizugu biarko Mezan - gere buru opaltzea.

Opaltzaille bat, Santu bat - bear artarako guk ordea..."

Eta une zerutarra!, elkar ezagutu dute:

"Iñigo Santu Loiolakoa: - Euskal-Eliza osazu,

Euskal-Eliza osa dezagun - bitarteko nai zaitugu"...

Iñigok, arloaren astuna ikusiarren, kementsu:

"Zure ta Nere Euskalerrria - nekalkide emen daukazu.

Anaiak ditut. Egin nazazu - Erri santu onen Santu..."

Au da Arantzazuko komdairaren unerik gorena, au euskal-ermitagintzaren gallur lleñurutsuena, au BAIETZ bi-kaiña..!

Iñigo ain adoretzu agertu bazaigu ere, izan zituen

bere zalantsak, bere burua ain arlote ikusten baitzuen. Baiña ara Amak zer:

"Jesukristoren banderarekin - mundura zoazkenean,
Oroi Erria, bere gomutaz, - indartsu senti zaitean".

Leengo ermitagintza Euskalerrrik beretzat bazuen, bigarrena mundu guziarentzat du. Euskaldunok an goaz gure santuekin: Iñigorekin luterotarren aurka, Xabierrekin Indiarara, Martiñekin Yapona, Zumarragarekin Ameriketara.

Euskal-mixiolari, Santu ta gudariak oro Euskal-Meza egiten doazkigu eta Meza-eskintzako lurrin bigunarekin Euskalerrri zeruratzen.

Amak "pozaren parre eztiena espaiñetan" duela au dasaigu:

"Ene Euskalerrri, txit enetxoa: - nere-nerea zera zu!!!
Ermitatxoa ein didazunez - seme zaitut, Ama nazu!!!"

Eta guk:

"Ama zaitugu, seme gaituzu, - Iñigo degula buru!
Zer geran iñork balesa, auxe: - Loiola-Arantzazu!"

Ei itzetan au dugu Arantzazu: Amatza semetzarako; ermitagintza semetzarako; semetza Amatzarako. Baiña gogora dezagun olerkariaren au:

"Etengabeko ermitagintzan - Euskal-Eliza ari degu.
Biziartean, ondo dakigu, - orrek bukatzerik ez du".

Orregatik guk ere ba-dugu gure eginkizuna, darraiogun gure Erriari, biotzean maitasun-garra ta espaiñetan abesti ezagun ura:

"Zuk zer dezu, ARANTZAZU?

ames-kabi, erti-leku..?

EUSKALERRIA oso-osorik

kantari dijoakizu".

Iturriots'tar Iñaki. (ofm)

Erri-Berriko (Olite) filosofari.

"AITA GUREA"

AUZIA

"Yakin" 2-gn. zenbakian artikulu bat irakurri nuen "Euskerazko Aitagurea dala-ta". Orduan enion kasu aundirik egin, gaiak berak naska ematen dit-eta. Geroago "Yakin" en bertan ikusi dut, ordea, jarraitzen duela eztabaidak eta gañera bada-goela bat aldekoa arrazoirik ematen ezpaldin badu ere. Alegia, orrela sortzen dira naaspillak, sentimenez gentea irabazita. Leen, batasunik ezpazegoan iritzietan, orain gutxiago. Euskaldunak zentzun aundikoak omen gara. Nik, ordea, sarri askotan burugabeak garela pentsatzen dit. Noiz asiko ote gara gizon izaten, ta ez ameslari?

Auzi onetan nere burua ipiñi nai nuke lekuko. Lekuona Jaunak 3-gn. zenbakian esaten duen bezala "Aita gurean" orain ogeta zazpi urte gauzatxo bat baizik ez omen zen aldatu, gizartean oso sustra-ituta dagoen formula batek merezi duen begirunea dela-ta. "Nola zeruan ala lurrean" esaten den tokian "Zeruan bezela lurrean ere" jarri zuten eta orretarako arrazoi bat eman omen zuten: bigarren era ori ere nolabait sustraitua zela. Eztut ukatuko. Baña ni nago ia ez ote zegoan askozaz ere sustraituagoa bestea. Eta gañera era apain arek duen jatortasuna nork ukatu? Aita gurean bakarrik etzaigu agertzen, egunero izketan ere erabiltzen ditugu ori ta orren antzekoak erruz. Goazen arira: naiz-eta aldatzeko erabaki ori artu orain ogetazazpi urte, nere aitak beti errezatu du leenbiziko era orretan, eta uste dut orrela egingo duela il arte. Gure Aita zerukoak mirakulu-en bat egiten ezpaldin badu. Alegia, esango dit norbaitek ondorengoak "ongi" egingo dutela, eta orreri erantzun bi emango dizkiot:

1.- Kasu onetan neu naiz ondorengo bat eta nik erderaz ikasi nuen umetan. Artu-ezazute au pentsagai eta ikusiko duzute anarkia norainokoa den.

2.- Nor gara gu izkuntza baten era ta itz sustraituak, ez bakarrik erriska edo eskualde batean, baizik-eta ia Euskalerrri osoan erroak dituztenak gaiz-

daudela esateko? Zein legeri atxematzen diogu ongia eta gaizkia, arazo aietan zer den finkatzeko? Ez ote da usteetako anarkiaren frutu, eta ez izkuntzakoa?

Egiten diren teoretan oso kontuz ibilli bear dugu, zeren teoria guztiak gure buruaren krea-ziño uts batzuk baizik ezpaitira, lanean eta esagupidean jarraitu aal izateko, eta aietan ez betiko deskantsua eta pakea artu aal izateko, fedeko artiku luetan bezala. Dato berri bat, gai berri bat ezagutu ta bereala aldatu bear izaten dugu teoria, ia zeare askotan. Gure burutik kanpo gauzak diren bezala dira; baiña ain da gutxi gure buruak ikus dezakeana, ezen ikusten duena bakarrik erabili izaten du oro konprenitzeko, teoriak eginik. Nola, ordea, konprenitu dezake oro, mundua leiotxo bitatik baizik ikusten ezpaitu, bere begi bietatik? Aurrekaldekoa baizik ezin ikus dezake, zeren atzean ezpaitu begirik. Eta noraño allegatuko litzake adierazten ari naizenaren neurria, esango banu begi biotatik oraiñaldia baizik eztuela ikusten eta vistak ematen duena, bizi garen munduak neurtu ezin genezakean denbora ta edadura dituelarik? Gaurko gizonak pentsatzen duen eta itz egiten duen guztia derboraren barna datorko eta beste gizon batzuk utzi digute testamentuan. Guk efektua ikus dezakegu. Baiña ez beti kausak. Eta ez dezagun beti aotan erabili sarri entzun oi den topike bat: erderakada.

A! Eta ez bekit saztu! Iñork eztauka eskubiderik guztiona den ondasuna norberekeri bategatik alperrik galtzeko eta nai den bezala aldatzeko. Dedu aundiagoa merezi du gizarteak. Alegindu ondatsun berriak sortzen.

A. Irigoyen.

"EUSKERAZKO AITAGUREA DALA-TA, GAIÑA

"Euskerazko Aitagurea dala-ta"-ko artikulua idaztekoan, etzitsaidan urrutitik ere bururatu orrenbesteko autsa arrotuko suanik. Bereala jaiki dira aurkako-aldekoak, eta bi ertzetakoak onartzen dituztenak ere ba-dira.

Aurkalaririk esaten didatena irakurri ta berrirakurri dut, eta alegiñak eginda ere ez didate gogoa ase. Kas-kagorra nunhait ni! Ede... bear ainbat indar ez neri eginda-ko aurkakizunak..! Ori ere algarri da-ta! Bana dala, bi-dezko egimin garbi batek eragiñik egia garbiagotzen saiatu naiz. Baña ez dut "biotzez eta sentimentuz" inor arrapatu nai. Adimenari itz egiten diot, eta errazoiem indarrak neurtuko dute uste bakoitzaren balioa.

Gaiñera, ez nator gastiña-maimuarenak egiteko arrotan, ez; ikasle batek bere irakasleari egiten duan bezela illuneak argitzera baizik. Izan ere gazte baigera, eta kas-karin, ba-dugu zer ikasi elduagoengandik.

Gure Lekuona idazle ospatsuak zera erantzunzion aundiaurkiñetan, nere "Aitagurea dala-ta"-ko artikuluari: "Euskerazko "Aitagurea" ondo dago, gaiñera gizarteko gauza da, eta ez da aldatu bear".

Asi gaitezen atzetik; alegia, gizarteko gauzak agur aundiz begiratu bear dirala, eta nolapai ez aldatu. Bedi, ba. Baña ez dut uste jakintzari inork ukatuko dionik, gauzen egia arkitu bitartean, miatzen jarduteko eskubidea. Ezertarakotasunean eta praktikan, gizarteak tajutzen baldin badu ere egia, bere egitasunean ezin dezaioke ezerk egiari tra-

barik jarri.

Artu dezagun gauza bere egitasunaren aldetik, "sentimentuari" batere kasorik egin gabe. Lekuona Jaunak, "ondo dagola esaten du". Bera maixu da, ta ni ez. Berak esaten duan ezkerro, ola da nunbait. Nik ere ola dala ikusi nai nuke Ez baidut, ordea, ikusten. Au duk au!

Txorroskerietan ez naiz sartuko, "besteei zorrak barkatzen dizkiegunean" zeñen zorrak barkatzen ditugun, aienak ala gureak-eta olakoetan. Argi asko ematen baidigu "barkatu" itzak: iñork barkatzen dituan zorrak ez dirala barkatzallearenak, barkatuarenak baizik. Dana dala, nere esatekoarekin zerikusirik ez baidauka, utzi ori, ta goazen maira. Alegia, "barkatzen diegun"... "barkatzen dizkiegun.."

"Gure zordunei zer egiten zaien" galdetzen nuan nik nere aipatu artikuluan (YAKIN, 2, 158-159 or.). Eta algarri auk arantzuten nituan:

- " 1) Barkatu utsa?, ala zerbait barkatu? Eta "zerbait" ori zenbat da,
- 2) Gauza bat?, ala
- 3) Gauza asko?

Bestetik ez dagela uste dut! Olaxe bukatzen nuan. Gero, beraxeago, galdera ari zein erantzun ematen zitzaien ikusi, eta onela nien: "Ona, ba, mola bear lukean izan gure "Aitagureak"..."

- 1) Lehenkoa izatekotan: "...barka izkiguzu gure zorrak guk ere gure zordunei barkatu EGITEN diegun bezela..."
- 2) Bigarrena izatekotan: "...barka izkiguzu... guk ere gure zordunei barkatzen DIEGUN bezela..."
- 3) Irugarrena izatekotan: "...barka izkiguzu ... guk ere gure zordunei barkatzen DIZKIEGUN bezela..."

Nik neretsat adieraspen bideskeena bezela, irugarrena artu nuan. Eta nere ustez, jarri nuan bear ainbat garbi zergaitia. Baña ez bide baidago erren argi Lekuonarentzat argi pittintxo bat geiago eman nai nioke.

Texte orren irugarren adieraspena bai, eta beste biak etzirala bidezko zergaitiztean "sicut... et" aiei lotu nintzaien, esanaz: "Bi itz oiek erkaera edo konparazio bat adierazten dute. Bi atal daude or "sicut... et" oiegaz loturik: "bata, dimitte nobis debita nostra"; eta bigarrena, "si-

cut et nos dimittimus debitoribus nostris"... Eta beraxe-ago: "Berdindu egiten baidira "debita nostra" (gure zorrak) eta guk gure zordunei barkatutakoak, Orrogatik, guri barkatutakoak asko diran bezela, guk barkatutakoak ere berebat dira ASKO". Ez deriskio berdin Lekuona jaunari.

Esan ere egiten du-ta: "Sicut... et" oiek be-omen dira "bezela", baña "aña" ez beti. Eta adibide bat dakar: "Diligens proximum tuum sicut te ipsum" (maitatu zure lagun urkoa zure burua bezela), Bear bada ba-diteke egi isatea ori. Dana dala etzaigu eman ajola nola izan DITEKEANAK, hic et nunc nola DANAK baizik. Gaiñera, Lekuona jaunak dakarren adibidean ez dator "sicut... et", "sicut" bakarrik baizik. "ta "et" orrek indar aundiagotxoren bat ematen diola uste dut. Ez da berdin berdin esatea: "maitatu zure lagun urkoa zure burua BEZELA"; eta beste au esatea: "maitatu zure lagun urkoa ERE zure burua BEZELA". Bigarren ontako "ere.. bezela" oiek "aña" k ainbat esaten ez badute ere, ez dabilte oso urrutti. Nolanai ere "bezelak" baño geiago esten dute. Oker es banago, berriz, euskaldun geientsuenak esaten duten "Aitagurean" ez da esaten "...guk ERE gure zordunei BEZELA", "guk gure zordunei BEZELA" baizik. Koxkorra nai baduzu, baña ez da euskeratzen "et" ori.

Gramatika bidez korapilloa ezin askatu badezakegu ere, textoinguruan sartu dezagun "Aitagurea", eta goasen Mt. 6, 9-15'ra. 12'gn aapaldian daukagu "Et dimittes nobis"... ori eta 14-15'an berorren azalpen eta adierazpena: "Izan ere gizonen beren pekatuak barkatu badezaizkiezute-barkatuko dizkizue zuei ere zuen pekatuak zeruko zuen Aitak. Baña gizoen barkatzen ez baldin badizkiezute: zuen Aitak ere ez dizkizue barkatuko zuei zuen pekatuak". Bear bada, ez bai koskorren bat izango duzu 15 aapaldiaren adierapenaz; baña ar zazu A. Vober-ek egindako españerakalpena, eta bereala ikusiko duzu nere alde dagona: "Baña gizonen ez badizkiezute barkatzen beren zorrak, zuen Aitak ere ez dizkizue barkatuko zuen pekatuak". Argiago?...!

Nere ustez argi ta garbi dago "Aitagure"-ko zati orren bidezko adierazpena, azaldu dugun au dala, eta ez besterik: "Barka izkiguzu gure zorrak guk ERE gure zordunei barkatzen DIZKIEGUN bezela"...

Baña irudipen baten bides egin desagun, nik uste bezela ez baña Lekuona jaunak nai duan bezela dala gauza, Alegia: es aako ta es gutxi, zenbatik esan gabe, barkatu utsa egiten dala; au da, indefinitum gelditzen dala barkatze ori.

Gosaren YAKIN 2 renbakiza eta erantzun dezalogun 158 orrialdeko galderari: "Zer egiten diegu guk gure zordunei?". Eta esantzia algarri aien artean, nun sartuko ote dugu Lekuona jaunaren indefinitum ori? Lenengo erantzunean dagola uste dut bete bete. Ala iru erantsun aietaz gainera beste erantsun berririk arkitu dugu? Zergatik es didazu, ba, esan leugarren ori? Arkitu ez baduzu berris, eta, irugarren erantsun okerretsita, lenengorekin gelditu bazera, zergatik ex diozu eskeneraño jarraitu eta ondorioak onartu? Barkatze orren kisua indefinitum izatekotan ere esaten nuan ez nola bear suksan izan gure "Aitagurea": Alegia: "...barka izkigusu gure zorrak guk ere gure zordunei barkatu EGITEN diegun bezela"...

Esan ere orrelaxe esaten baidugu, inkiridoa edo galdokizuna INDEFINITUM, aditza bera danean. Au da euskerazko euskera, eta S. Altube 'k dioez: "euskeraren bertsikuntzarik nabarmenduenetako bat". Adibides: "ikusi egin dugu. Zer ikusi? Noia, nun, nola, ...? Ezer ez; orixe, ikusi. Eta au ez da nik asmatua. Lekuonak berberaxe orrelaxe esandakoxea da (YAKIN 3, 163 or): "Trikiña da-ta barkatu egin bear saio. (Zer barkatu, gero? - Ezer ez; orixe, barkatu)". Orixo esaten nuan, ba, nik ere. Baña zure adibide ori eta "Aitagure"ko barkatze ura, ez ote dira, ba, berdin? Baietz diozu suk, eta olaxe da. Zergatik, orduan, batean EGIN sartu eta bestean ez? Berdin badira, soñeko berdiña. Esan, suk ere "guk ERE gure zordunei barkatu EGITEN diegun bezela" eta ez "barkatzen diegun bezela". Nere ustea okerretsi egiten baduzu, zurea ere aldatu bearrean zaude. Gorago ere zergaitiztu dut, ordea, irugarren adieraspena dala textoinguruarekin adiskideago dagona, eta onela esan bear litzakela zuzen esateko: "barka izkuguzu gure zorrak guk ERE gure zordunei barkatzen diskiegun bezela".... Au egitasunaren aldetik begiratuta gizartearentzako aldatzea komeni dan ala ez begiratu gabe.

Orain beste bat; alegia, asierako "Aita Gurea"- "Gure Aita" ura ikutu nai nuke. Lenengotik, zorionak zuri,

eman diguzun azalpen ederragatik. Neri etzitzaidan iñoiz bururatu orrela izan zitekeanik. Gaiñera nere esatekoaren mamia ori ez baña bestea baizan, ez nion jaramon aundirik egin. Eta esandakoa esan bazuan ere, zeragatik nuan: bate-tik, beti gogor egin zaidalako joskera ori. Bestetik berria, R.M. Azkue'ri irakurri nion bere "Discurso de introducción en la Real Academia española"-n, eskura ez daukatalako zein orrialdetan dakarren ez badakit ere. Gaiñera, Begoña'no Ama Birjiñaren urre-etzaiak zirala-ta argitaratu san kar-tel batean, eta beste liburu batzuetan ere bai, orrelaxe i-rakurri dut: "Gure Aita zeruetan zagozana"... Orregatik ni-on guztiek zekitela erderakada orren berri.

Gaiñera erderakada esatekoan, erderatiko joskera zala esan nai nuan. Iñork ukatuko ote du, ba, ori ere? Beste kontu bat da, erderakada dala-ta besterik gabe beztertu be-ar ote dan. Baña erderakada dana ezin uka ditekala uste dut. Bestela euskal-literatura bezin zaar dira "zein, zerren, sergatik, ze"... relatibo-ñende oiek ere; eta euskera eus-kerak sortu ote ditu oiek ere, ba? Zeuk ere ba-diozu-ta: a-rau orokarra "Gure Aita" joskera da, eta beste ori bereiz-kuntza-bidez bakarrik "Aita gurea". Baña mundik sortu da bereizkuntza ori? Euskerak berak atera ote du? Ez ote da, gero, izan latin-izkerak inguratu eta kutsaturikoa? Itzul-penak seatz meatz egiten diranean orrela sartu oi dira er-derakadak. Idazteunen itzulpen-kondaira ikusi besterik ez daukazu ortarako. Gero, oiturak legestu egin baditu ere, er-deratiko dira.

Olerkietan erabiltzen dirala-takoak, berriz, ez dut uste indar aundia daukanik; akakeri geitxo erabiltzen baidituzate gure olerkariak. Ortaz gaiñera, "pitxi polita" dala ori, eta Irigoyen'ek dion "nola zeruan ala lurrean"eko joskera ere barebiziko ederra: gusto-kontua da nunbait. Or-relako pitxirik gabe balego gure euskera, ez dut uste as-koak negar egingo luketenik; eta bear bada, poztu, amaikatxo bai! Dana dala ba-duzu zure egi-mututrra azkeneko ontan: alegia, notin-izenekin erabili samarra dala "Aita gure"ko joskera ori, eta besterik ez bada ere, begirunez begiratu bear litzakela. Baña arau au beste orokar arekin berdintzea geitxo esatea dala uste dut. Bereizkuntza bezela, or nun-bait! baldin badago ere, gogorregi eta urriegi da beste a-rau orokarrarekin berdintzeko. Gauzak gutxiagietea ez da-

go ondo, baña geiegiestea ere ez. Eta kalte txikiago (mal menor) bat bezela dana, ezin jaso diteke nolanai pitri-mallara.

Orañarteko au egitasunaren aldetik begiratuta esan daga. Eta ikasi daga lekona jaunak "ondo zegoala" zioneko ura, guk esandako au egi bada beintzat, etzegoala a-in ondo. Gaiñera, gizarteko gauza zala esan zigun. Au dala itz bi esan nai nituzke.

Egi egia da, gizarteko gauzak ezin ditezkeela nolanai aldatu. Baña gizarteak berak eskatuko balu aldatze ori? Orduan ere ez? Une ontara berriz, batak eta besteak nai izanda irixten da. Ez geiago eta ez gutriago, auze zan, ba, nere itz aiek esan nai zutena: "zeruan bezela lurtean ere" aldatu egin zan bezelaxe, ezin al ditezke aldatu besteak ere?" YAKIN'ek ez dauka eskubiderik gizarteko gauzak aldatzeko; baña aldaketa gizarteari idarokitzeaz eta sujeritzeaz iñori eskubiderik ondatzen ote dio? Baña ez omen da iñola ere komeni, eta utzi dezagun dagon dagonean.

Gai aukerak erabilili ondoren ezin amaitu nezake, labor bederen, España'ko Gotzai Jaunek artu duten erabakia aipatu gabe. Eta espantarrak baño lenago zebiltzan lan berean heste atzerri batzuetakoak. Onezkerok, nik bezin ongi daki irakurleak, nola aldatu dituzten "Aitagurea, Agurmaria, Sinisten dut, Jesukristo nere Jauna, Agur Erregiña, Ni pekataria" otoitzak. España'ko prentzak alde guztietara zabaldu da berri ori, eta ez daukat zertan emen aipatu. Gizarteko otoitzak ziran, eta egunero esaten ziranetakoak. Eta guztiak aldatu dituzte Gotzai Jaunek; beraien izkera guregunekoago izan dedin, eta beste gauza koskor batzuk erantsiaz ere bai. Eta aldatu ere dexte batzu batzuk. Dotriña bat aritaratu ere egin date berritasun oiekin, gotzai-barruti guztietan zabaldu dedin.

Eta euskerazko otoitzek zer egin bear dute? Lenagoko zaarrean jarraitu; ala arau berri oietara tajutu? Aldatu egin bear badira, berriz, bein ondo jarri eta kito. Erriarentzako berdin da itz baten orde z bi dalzea. Bein aldatzen asi ezkerok, ez dago bereizkuntzatakoko euskerarekin ibilli bearrik; erabat sasikok ez bada ere, erdi-sasikok euskera da-ta. Euskerazko euskeran jarri otoitz oro, eta erderazko euskerari... biotz biotzez agur egin bein betikok.

Fernando Mendizabal Arantzazu'ko teologari.

IBINAGABEITIA'tar ANDIMA'k

Caracs's'tik Daguënilak 8-1957

YAKIN'en suzendariari:

Aba agurgarri: Egun batzu lenago eskuetara sitzaiden YAKIN aldiskariaren irugarren banakoa. Adiskide batek utzita bigarrena irakurtzeko aukera isan nuen eta esan bearrik ez zenbaki biak icranes irentsi ditudanik, suskalsale bati dagokion poz-atsegiñez dardar. Gasteak datokigu kantari, gasteak datokigu aldarrikari euskeraren gandu belunak bare sots argi ta ozenez ukrazten. Bisitz erpiñera iritxita ama lurraren magal espelera lerratsen asi geranok, nola postu ez? Simsonenak ioteko gersaira ez naiz oraindik eldu, ala ere euskal-Mesia berri au eskuartean jaso dudanean alako "nunc dimittis"... eder bat oiustatzeko gogo bisia sortu zait. Ez naiz geiegikeriz ari.

Apaiz-gai gasteok gaiñera, irizpiña sabalenas jantzita datokigu aldiskari ontan, bai gaiari buruz, baita izkerari dagokionetik ere. Ertsikeriak berez, urri eta txiki-tzera garxamaski. Maistxoegi ikusi izan dugu ori gure alorrean, bear baiño maisago. Norbaitek Orixe'ren kutsua darila suen euskerak iausti ditute. Ez dakit iraiñez bota ote dituten ordagotxo ori. Ala balitz gorapenik sundiena egin ditute gogoz-beatera badare. Euskal iturri gardenagorik ez ditute inñuz arkituko. Ogeitamar urtez gero euskal idasketan ari geranok iturri ortan eradan ditugu geure gogoak, eta zuek ere ola bearko dituzute. Iakiña beste idazle argi zenbait ere ez dira astantzekoak zar eta berrien artean. Euskal-idazleok beti bear dugu irakur-miñes. Iskera bat egiten ari gera, iskera bat iasotzen, eta ortarako danon alegiñak dira onak. Norbaitek euskera eginda dagoela iardetsiko dit, bai eginda dago, zenbait gaietan ordea, araindik egiten, bear gumean sabaleran eta sakonera gure aberri-iskera erabili es dugulako gaurdaño. Eta zuek Apaiz-gai azkarroñ, aspalditik euskerarentzat opa ditugun gaindegiak iristen ari zerate. Zuen lan ori, uste baiño len, Eliz Amaren apaingarri bikaiñena gertatuko da, naiz-ta egunge eliz-agintariek besterik uste. Betik gerako alegiñak mais goitik berakoak baiño eraginkorragoak izaten dira.

UTSUKETXO batzu arkitu ditut zuen lankidesean ar-
tean; auzo bat: **BIZKAIKO APAIZGAIRIK EZ DUT IKUSI IDAZLEEN**
ARTEAN. ANGO SEMINARIOAN EZ OTE DAGO EUSKALDUNIK? Bizkaita
rra naizenez ori pentsatuta beste gabe negargura datorkit...

Aurrera Yakin ari duzun bide ortatik eta zuen ia-
rraibide argiaren erlantzera beste euskaldun gazte iskitu-
nak ere piskortuko al dira, bakoitsak bere saillean suena
bezelako lan ederre burututseko.

Guk emen gutxi egin dezakegu, baiñan ez disutegu
gure laguntasunik ukatuko. Saiatuko naiz zuen aldizkarira-
ko arpededunak billatzen, ez dakit zenbat, al ditudanak bai
beintzat.

Lasater lasoko dituzute gure berriak. Anartean a-
meslari zar onen txalo beroenak ar iskitzute.

Ibinagabeitia 'tar Andina.

EUSKAL BILLERAK HAZPARNE'N (UZTALLAREN 23-28)

ESKUALDUN IXTUDIANTEN

HAMARGAREN EGUNAK HAZPARNE-N.

ZONBEIT GOGOETA.

" EMBATA " eskualdun irtudianten batasunak bere hamargarren egunak egin ditu aurtan Hazparne-n. Ez zen Lapurdiko probintzian, Hazparne bezain herri pollitagokorik, egokiagokorik, eskualdunagokorik hautatzen ahal. Duela hamar urte, Hazparnen egin ziren eskualdun irtudianten lehen egunak. Hazparne-n bizi diren langile eta laborariek eskuara badakite eta mintzatzen dute, badakitelarik alta frantsesa nehor bezain untsa! Baina ez dute eskualdun izaitiaz ahalgerik. Noiz artino begiratuko ote dute beren eskualdun goa garbi eta sano? Agian geroago eta hobekiago. Agian ere geroago eta azkarkiago, Hazparne-ren inguruan aurkitzen diren herriak beren eskualdun izaitzean eskualdunago isanaraziz. Ez goatzi ez kundatzerat nola iragan diren egun horiek. Bakarrik zonbeit gogoeta egun eder horietatik landa, hor intzus mintzaldi eta ibili solasaldietarik landa.

Badu orai hamar urte "EMBATA", eskualdun irtudianten batasuna, asmatua izan zela. Batasun horrek elgarretartzen ditu Frantziako Unibertzitateetan (Parise, Bordele, Tolosa...) beren eskolen egiten ari diren irtudiant eskualdun gehientsuenak, maleruski ez denak. Oharturik geroago eta gehiago bazirela Eskual-Herriko haurrak Unibertzitateerat zozatzenak, beste asko herrialde eta eskualdeetako irtudianten gisa, eskualdunak ere pentsatu zuten batasun baten moldatzea, nahiz Eskual-Herriko indar eta baliotasun hoberenak bildu

eskual-jerdearen geroa preparatzeko eta segurtatzeko. Bere hastapenetik orai artino "EMBATA"-k moldatu ditu, urte guzietan, bakantza haundi denboran, eskual ekonomiari eta kulturari buruz zoztzin egun zonbeit. Nahi baldin badugu zerbait ongi egin ez ote ditugu egungo arrangurak aztertu behar? Oraiko behar-orduak ez dire nihundik iragan mendeetako behar-orduak. Mende berri hunek sorarazi ditu problema berriak. Problema berri horier beha gaiten, beldurrik gabe eta entsega heien hobekiago ezagutzerat. Egundorietan, Eskual-Herriko jakintsun eta buruzagiak lagun, ixtudiantek elgarri ezagutarasten dituzte Eskual-Herriaren eta eskual-jendearen geroaz geroaz beren baitan dakarzkaten grina eta arrangurak. Bai Eskual-Herriko ekonomiaz, bai eskual-iskuntzaren geroaz mintzatu zauzkigu aurtengo hautatuak izan diren jakintsunak: LEIZAOLA, LAFITTE, GAKITEGI, ERRECART... Aipatu daukute sex egin ahal ginduken... bide eta xendera zonbeit ere erakutsi... Denek, bakotzak bere sail hartan, erakusterat eman daukute, klarki eta garbiki, Eskual-Herriaren geroa bai ekonomian, bai kulturaren gure eskuetan zagoa, Arren nolaz ez ditake gure eginbidea beharrien idekirik atxikitzea? Begien sabalik begiratzea? Izpiritua erneago ukaita eta eskuak zaluzago paperaren gainean finkatu planen obratzeko?

Lurraren gainean sortu diren edo sortzerat doatzin erresuma guzietan aurkitzen da "hautuzko jendetze" bat, erdaraz erraiten den bezala "une élite". Badakigu zonbeit gizon aski direla mundu baten harrotzeko, inarrosteko; heien baliotasun eta jaidura on eta txarren arabera doala mundua harat eta hunarat, itxasoaren moimenduaren idurira. Gertakari horrek erakustera emaiten dauku "hautuzko jendetze" horren inportantzia eta behar-ordua erresuma eta eskualde baten kudeatzeko bere etorkizunean. Eskualdun ixtudiantek, Eskual-Herriko jakintsun, buruzagi, laborari eta langileekin eskuz-esku bat eginez "hautuzko jendetze" hori asmatu gai dute Eskual-Herria kudeatzeko bere ekonomiaren eta kulturaren etorkizunean.

Ekonomia sailean, hor ditugu laborariak eta langileak beren arrangura, grina eta behar-ordu berrien salatze-ko. Hor ditugu ingeniorak gure kontseilatze-ko. Ez da dudarik laborantza, artzaingoa eta arraintza ez direla aski izanen geroan Eskual-Herriko semeen hazteko. Zerbait gisaz,

lehen bai lehen, gure industria beharke dugu haundiarazi, industria berri batzu sararaziz, Guipuzkoan eta Bizkaian aspaldi huntan egin dituzten bezala. Berma gaiten denbora utzi gabe iragaiterat. Gisa hortan Eskual-Herriko gastek, Landesetako eta Biarnokoek bezala beren eskualdean aurki lezaketere beren bizitzekoa Ameriketarat eta Frantziako hiri nagusietarat ihes joaiterik gabe. Eskapatzerat utsi behar ez dugu okasione baitezpadazkoa gure Eskual-Herriaren bere mugetarik gaindiarazteko, Landes eta Biarno eskualdekin batetataratu beharrez, ber intresen eta aberastasunen gaintzeko, ber ekonomiaren ukaiteko! Industria berri hori eraiki denboran, ez ginduke ez lo egon behar. Geroa behar dugu preparatu, orai danik entsegatuz Eskual-Herriko gasten sararazterat lekuko lantegi eta uzinetan, langile estranjerak eta arrotsak utzi gabe hutsik dauden lekuen hartzerat. Bertze eginbide bat ere guri dagokiona gaste horien gogo-bihotsen preparatzea beren bizi berriari buruz. Orduan laster oharitzen gira zer inportantzia hartzen duen eskual-kulturak gaste horien altzatzeko eta eskolatzeko. Ikusten dugu zombat behar giren ernatu eskual-kulturaren eragintzeari, ezen kulturaren barnean beita hazten gizonaren gogoa, pizten haren adimendua, gizonari emaiten munduaren eta lurraren gainean bizi diren guzien behatzeko manera. Kulturaren barnean beita ere loretzen gizonaren izaita, sustut eskual-kultura bezala girixtino hatsaz berotua delarik, girixtino indarras bete delarik, girixtino biziaz bizitua delarik. Ez da eni erraita zer egin behar litaken eskual-kulturaren eragintzeko. Anitz lan eta entsagu egiten da zazpi probintzietan. Moimendu haundi bat bada zonbeit urte hotan abiatua mundu guzian bizi diren eskualdun guzien artean; oldar berri bat itxaropenez betatzen gaituena. Geroago eta ugariago agertzen zauskigu eskuarazko errebirta eta kasetak: "Euzko-Gogoa", "Gure Herria", "Egan", "Herria", "Gaste", "Etxea", "Anaitasuna", "Zeruko Argia", eta Pariseko "Elgar"...; edizio-berriak eraikitzen dira bai Ameriketara, bai Guipuzkoara... Jarraik gaiten moimendu berri horri; sar gaiten oldar berri hortan eskual-jendearen geroa segurtatu nahiz, guharen izaitaaren iraupena eta osotasuna bilatu nahiz.

Halere uste dut hobekiago litakela zazpi probintzietako eskualdunek gehiago elgar adi bagindeza, gure in-

darrak sobera debsldetan enplegatu gabe, ELISSANBURU dion bezala "ARBASOAK" deritzan bere kantu edarrean:

"Anaiak gaituk eskualdunak;

"Orai ere,ozala

"Jartsen bagine "guziak bat"

"Lehenago bezala!".

Gogoak ez dezake ukan mugarik. Gure gogoak dugu zabaldu behar eta biziaren oldeari erne atziki. Orduan ohartu ginazke lehengo mendetan gizonak eraiki zedarriak lurrerat doatzi-
la,edo, preseskiago, airez-
aire gaituak direla: Parise-
tik,Tokyo-n,edo New-York-en edo munduko hiri urrunean zonbeit orenen burusa izaiten ahal gira. Atomikaren mende-
an bizi girela nola dezakegu ahantz? Mundua ziuntan badoa-
la naclaz ez ginezazke ohartu? Alta ez gire izitu behar. Gure gogoak behar du izan munduaren izariko edo,hobekiago, munduaren izaria baino doi bat haundiago,mundua bere osotasunean jasateko gisan,Jainkozko so batez gizon eta gauzak behatzeko,inguratzeko eta jujatzeko gisan. Munduaren izaria baino doi bat haundiago,munduaz itoa ez izaiteko gisan; bere azkatasunaren jabe egoiteko gisan eta Jainkoaren erakaspeneren arabera bere izaitea egiteko gisan. Ezen gure arrangura premiatsuena,gure griña samiñena gizonaren salbatzea beita atomikaren mendean,eta,berezikiago,gure sor-herrian eskual-gizonaren salbatzea atomika-mendeak emaiten dion bizimodu berri huntan.

Eskualdun-ixtudiantak eginbide horri ohartuak dira eta hortakotz dira elgarretaratu batasun batean,beren indarren biltzeko,elgar sustatzeko. Agian,geroan,hamar urte dituen batasun hori haundituz joanen da. Agian,geroan,batasun hori azkartuz joanen da,bere eginbideeri jarraikiz eta bere xedea kunplituz Eskual-Herriaren eta eskual-jendearen onetan. Eskualdun guziek behar dute lagundu "EMBATA" eskual-ixtudianten batasuna; ez bakarrik begi onez behatuz, bona ere nork bere tokian,bere etxean,bere eskolan,bere herrian,bere eskualdean eskualdungoaren alde obratuz; nor berak,zerbait gisaz,parte hartuz eskualdun ixtudiantek hasi eta jarraikitzen duten sail hortan. Kaskoz eta eskuz, denek bat eginez,bakotzak bere sailean bere jakitatearen eta ahalen arabera,zer ez gindezake egin? Beti gerorat utzi gabe egun egin beharra,berma gaiten gure eskualdun e-

ginbideen betatzeari. Batzutan, arteño bat bedukegularik, har dezagun eskuetan "AXULAR"-en "GERO" eta irakurt liburu mamitsu hortako lehen ka-pituluak. Orrialde horietan hatzemanen dugu anitz erakaspen maiz gogoan erabili behar gindetzazkenak. Huna orrialde horietan hautatu zatiño bat:

"...kalte guztien gaiñeko kaltea, alferkeriatik eldu
"den andiena, zeñi narraikola erran baitut nik orsiño-
"koan erran dudan guztia, da luzamendua, "gerotik gero-
"ra" ibiltzea. Zeren nagi-alferrak eztu bein ere erra-
"iten "egun"; beti "bihar", beti "gero", beti "luzamen-
"du". Alfertasuna da "gero" guztien iturburua, zimen-
"dua eta ama, egiteko guztiak "egunetik hiharrera, pre-
"sentetik etorkizunera, eta gerotik gerora" luzatzen
"dituena. Eta ama hunen alaba haur, nagitasunetik eta
"alferkeriatik sortzen den "gero" haur, da gure galga-
"rria, gure izurria, eta egundaiñotik gure etsai dea-
"bruak gure enganatzeko ediren ahal duen bide-rik
"eta arterik oberena, finena eta segurena.

" Beraz guk ere "gero" huni eduki behar diogu be-
"gia. Hunen gureganik kentzera, urrantzera eta etxetik
"ateratzera behar dugu gure indar guztiaz eta antzeaz
"enseiatu, permatu, deliberatu; eta egun egin behar du-
"gun gauzarik ets ahal daidikegunik, ez biharko luza-
"tu."

(GERO, IV argitara-aldia Zarautzen 1954,
18-gn orrialdean).

Artetan, zendako ez egin gogoeta zonbeit lehengo mendetan bizi izan diren eskualdun zintzo eta ospetsu horiekin? Beharba beren buru zabalaren barnean balukete guri zer erakuts eta imilik daukaten mihi puntan guri lau e-gia erraiteko!

Arnaud Erdozainzy-Etchart (ofm)

ORSAY-ko teologari (FRANCE).

ARANTZAZUN IAKINLARIEN BILLERA

Agorraren 11-12 egunak Arantzazu'n igaro genitun iakinlariok. Elburu batek biltzen zituan, aspaldidanik, gure asmoak; baña egi esan, ia ez genduan batabestearen berririk. Elkar ezagutu bear gendula, ba-ta, udarako oporraldietan Arantzazu'n biltzeko asmoa artu genduan. Bildu bagin, bildu ginan. Ez genduan zeremoni askoren bearrik izan elkar ezagutzeko. Zazpi apaizgai, lau jesulagunditar, sakramentino bat, eta sei prantziskotar. Eta 12'an etorri zan beste Bizkaiko apaizgai bat. Emeretsi ginan guztiok; baña etorri ez baziran ere, an geneuskan beneditar, karmeldar eta beste iakinlarikideen asmoak ere.

Argazki bat atera gendun, eta biltokira abiatu ginan. Ura euskerazko tokia euskalariok biltzeko. Pago gazteen itzaletan, txoriak kantari genitula, "Aita gure" bat esan gure seruko Aitari, eta belar bigunaren magalean eseri ginan.

Lenengo billera zalako, eta jomuga nagusiena elkar ezagutu eta elkarren berri jakitea zalako, ez genduan gai jakin eta borobildurik eraman. Baña erabat borobil ez bazeuden ere, kaixotarte artako beroak ederki egosi zituan guk asimasitan eramandako gaiak. Batez ere maila aundi bat erantsi genion gure adiskidetasunaren kateari.

Pagoen itzalak ematen zigun babesean aundiagotu, eta beroagotu egin zitzaigun gure elkartasuna. Apaiz-asmo batek lotzen ginduan guztiok. Eta gure zaiñetako odolak a-nai ginela esaten zigun. Zer bear gendun geiago bat etortzeko, asmo-biotzen batasuna baño? Orixe eskatzen zigun gure biotzak: batu gure apaiz-indarrak, batu gure eskuetan Jain-

koak jarri digun erriaren aunditasuna irixteko bideak. Batu, bai, batu: batasunean dago indarra-ta.

Ba-geunden, ba, olaxe belarretan borobillean katurik, eta asi zan bat izketan "YAKIN batasun bide" gaitzat arturik. Auek esan zituan gutxi gora bera.

Euskal-idazleen artean batasunik ez egoteak kalte aundia dakarkio Euskerari. Guztiok dakigu zenbat bide ta biderka dauden euskera-kontutan. Askotan, buru baño a-buru geiago. Eta ondarena besterik ez dakar onak Euskera-rentzat. Noizpait ausi bearra daukagu naspilla ori, ezer tajuzkorik egingo badugu.

Batu egin bear dugu. Baña nundik asi batutzen? Or zegok korka!

Gaitz bat sendatzen asteko, bere zabaleroa eta zuztarrak ezagutu bear dira lenengo. Euskal-batasuna aus-ten duten joera-saillak miatzen asi ezkerro, berriz, bi sail ikusten ditugu sail nagusi bezela: garbizaleak, eta mordolozaleak. Beste gaiñetikoak, oien adar eta txotx besterik ez dira. Zein obe ta zein txarrago?... Ori erabaki bitartean zai egon bear badugu... zaartu eta berriz jaio ere egingo dugula uste dut. Garai auek ez dira egoten egoteko. Zirti-zarta jo bearra dago nunbaitetik. Besteak beste, bakoitzak erabaki bear du gaitz ori nola sendatu, bere alaren neurrian. Bakoitzak bere apurra jarri ezkerro, goizago edo beranduago, baña erabaki egingo da arazoa, eta gaitza sendatu.

Auxe egin nai izan dugu guk: gure mende dagona erabaki eta batu. YAKIN-en idazten dugunok, beintzat, batu dezagula gure idazkera eta berdin idatzi. Beste guztiek beste orrenbeste egiten badute, luzaro gabe izango genduke euskal-idazkera bakarra. Noiz asi bear dugu gure buruaren koxkorkeriei uko egin, eta guztion arteko onak eskatutakolari agur ematen?

Ba-dira gauzak, bai mordolozaleek eta bai garbizaleek onartu lezazketenak. Auetxetatik asi bear dugu: ortografi-gauzetatik, alegia. Askotan gertatzen zaigu: esatera bat irakurri, eta berriz irakurri bear izatea ondi ulertuko badugu. Eta guztia, ortografian bat ez gatozelako. Adibidez: "ba-gera, ba'gera, ba gera, bagera"... Zer esan nai

dute oiek? Dauden daudenean, ezer ez. Batzuentzat: "bai, bagera", eta beste batzuentzat: "baldin ba-gera"... Nola ala erabaki batzuk artu bearra dago naspilla ori garbitzeko. Iru auek artu bear genituzke gidari bezela: "1) osakiak alik eta osoen, garbien, eta berdiñen gelditu ditezela beti; 2) ezaugarri edo siñaleak alik eta gutxien sartu; 3) ezaugarri oien artean erabillienak beti".

Guztiok ikusten gendun askakeriak zekarten ondarena, eta danoi ase ziguten gogoaz arrazoi oiek. Eta asi giñan ortografiatzeko gauzei eltzen.

(Erabakiak atzean jarriko dira zetz meatz, emen eztabaidak batez ere).

Nola idatzi bear da "BA" izkia baldinduna (condicional) danean, eta baiduna (afirmativo) danean? Eztabaida konkor bat izan zan. Norbaitek esan zuan Euskalzaindiak erabakita zeukala, eta onela idaztea erabaki genduan: baiduna danean itziri (guión) batez aditzari lotuta: "bai, badator; ba-gera"... Baldinduna danean berriz, aditzari batuta, ezer gabe: "baldin badator"...

Beste eztabaida: ia nola idatzi "BA" baidunaren eta aditzaren tartean beste izki bat tartetzen danean. Batzuk, itziri baten bidez lotu bear zirala guztiak. Besteek, ezeiz: guztiak askatuta idatzi bear zirala. Erabillia goa zala, gaiñera kera au. Eta ontan gelditu giñan. Alegia, guztiak askatuta: "ba omen dator", "ba ote doa"?... Eta bukatu genitun bein betiko "BA" kontuak. Emendik aurrera "ba-gera" idazten danean, baiduna izango da; eta "bagera" idatzitakoan, baldinduna. Bestelako kerak kondairan gorde ditezela.

"EZ" izkiarekin ekin genion urrengo. Aditzari batuta ala banaturik idatzi bear da? Biak dira oso erabilliak. Baña errestasunaren maitasunagatik banatuta jartzea erabaki genduan. Izan ere, batuta jarri ezkerro, adizkiaren asierako letra ia danak aldatu bearrak daude, esatera ezdun (negativo) biurtzen danean. Eta gauzak zallagotzeko gogorik ez geneukan guk. Aditzagandik askatu ezkerro, berriz, aditza oso osorik gelditzen da beti. Orregatik, bada, "EZ" izkia aditzagandik beti aske ipintzea erabaki gendun. Bada ordea kaso bat "EZ" eta aditza askatuta jarri ezkerro gogorregi egiten dana mintzatzeko. Alegia, adizkia "z" ba-

tegaz asten danean: "eZ Zan". Orduan, eta orduantxe baka-
rrik, aditzarekin batu eta bi letraen ota-aldatzea onartu
zan, bi zetatetik (s-z) "ts" egitas: "ez zan : etsan". Be-
reizkuntza auxe bakarrik onartu genduan; bestela gogorregi
egiten dalako, eta ia orokar dalako.

Beste akitaldi bat "Bai, bait"-jende orrekin izan
genduan. Emen ere: "bai du, bait du, baidu, baitu, bait-du"...
idazten da, batere batasunik gabe. Gustiak dira oso erabi-
liak. Gu errexenaren atzetik beti, zera erabaki dago: "bait"
artu eskero, adiskiaren lenengo letra aldatu bezala dago,
gogorregi egiten baida bestela. Orregatik, "bai" zukeratu
dugu. Baña "bai" ori aditzagandik aske jarri eskero, "bai"
adberbioarekin nastu ditoke. Ori dela-eta, aditzari batuta
jartzea erabaki dugu: "aita RAlidator"...

Norbaitek oartu zuan, eta egia benetan. Ia zerge-
tik idazten dugun, jakintza eta goi-euskara egiten ari ge-
ranean, "dot", "det"... eta olako bereiakarak. Gustiak uler-
tzen dute, eta naiko ezaguna da "dut" kera. Orok onartu zu-
ten eta "dot, det"... kerak pilipilietara bidali genitun.

Atzerri-itzak nola idatzi bear dituge euskeras?
Ona an ezarri zan beste arazo bat. Izen nagusief buruz, ez-
tabaidarik etzan izan. Diran diranean utxi bear dira: "Hei-
delberg, New York"...

Baña eta its arrontak? Idea eder bat jaurti zi-
gun batek, Esperanto izkuntza arautzet arturik. Esperanto
izan da nazio-arteko iskera izateko autatua. Gertatzez ba
ote dan ala ez etzaigu ajola. Beñepein, berak esandako a-
rauk zuzenbide bezela artu leizke. Benetan, erabateko erre-
xa da iskera au, baña ez orregatik ideak-eta adierasteko
beste izkerak baño traketsagoa. Eta GAURREGUNGO JAKINTZA

IZKERA IZATEKO ASMATUA IZAN DAN IZKERA OREEK, EZ DU BEARREZ-

KO ERITZI INTERNAZIONAL ITZAK, ZEIN BERE IZKERATAN BEZELA

IDAZTEA. Itza artu, bai; baña idarteka aldaturik. Ain zusen
ona Esperanto-gramatikak gai ontaz diona: "Pronunziatzen
diran bezela idatsiko dira its gustiak. Internazional-itzak
berberak geldituko dira, baña ideakera aldaturik". Adibidez:
"Filosofo, Flegio, eKSkomuniko"... eta ez Philosophia, Physica,

eXcommunicatio"... Desberdintsak berealaxe ikusi ditezke.

Arau ederra benetan Esteranto'k ematen digun ori. Eta guk ere arau berori onartu genduan. Atzerri-itx arrontak mintzatzeko hira bezela idatzi bear dirala: "Teodizea, metaFisika"...

Onoko aue ere,kozkorra izango da nai baduzu,baña oso ederra argitasunarentzako. Alegia izen nagusien eta atzizkien artean esaugarriren bat jarri bear litzakela,bi oiek nastu ez ditezten. Zein jarri? Bi dira erabillienak: bereskatza (apostrofoa) eta itziria (guión). Estabaida triki bat isan nan,baña erabilliena omen salako,bereskatza edo apostrofoa sukeratu genduan. Alegia,ola: "Jasus'en,Donosti'ko"...

Aipamen-kontuetan ere ez dago batasunik,Idatziz deuzen aipamenetan batez ere. Eta arazo onetan,latifneskoekin ez baña euskerazko letrak idatzi bear dirala Liburu Santuen izenak,onartu genduan: "Iakas,Philipotarrei"...

Sailketa edo dibisioak egitekoan ere batzu erderazko letrak erabiltzen dituzte: "a,b,C,..." Eta euskerazko letrak egitea erabaki genduan "a,b,d,e..." euskeraz ez dauden letrak utziaz.

Au ere bai gainera: "Erabaki auek utsetan gelditu ez ditezten,YAKIN'en beti ola idaztea erabaki zan. Eta inork oartu gabe bestela idatziko balu ZUZENDU ETA GOIEN ESAN BEZELA JARTZEA. Orra ba: YAKIN'en idatzi bear dutenek ola idatzi beariko dute. Eta arrazoi apartekoren bategatik bestela nai lesaketenek,esan dezatela argi eta garbi artikuluak bialtzekoan. Bestela gustiak aldatuko dira.

YAKIN aldizkariak kanpora ere batasun au lenbala iritxi dedin,erabaki oien birridaski edo kopiak atera eta euskal-idazteei banatzea erabaki zan.

Au,idazkera-batasunari dagokionez. Baña idazkera batutzea ez da aski. Au baño aundiago da,eta kultur-integria ere batu egin bear da. Emen ere,ordea,norberak egin bear du lenengo batasuna,erabiltzen dituan itzei beti esanai berdiña emanaz. Gertatu ere askotan gertatze baida,artikulu bertan itz bat esanai askokoa erabiltzea. Orrela,berriz,batutzeko biderik ere ez dago. Orra,ba: lenengo norberak

egin bere batasuna. Orrezaz gainera guztion batasuna egin bear da. Au burutzeko zenbait bide ederretsi ziran. Ienen-gobide errezena, norberak idazten dituan lanetan erabili-tako kultur-itzak bildu eta artikuluaekin batera Arantzazu'ra bidali YAKIN'en izenean. Beste bide bat, kultur-iztegi arazoan eginda dagon lana, bildu eta besteak bezelaxe fitxatan YAKIN'en susendegira bidali. Ortarako zenbait liburu sar eta berri banatu ziran iakinlarion artean, baita an etzeudenen artean ere. Fitza auek GUTXILENEZ urteko iru aldiz bidali bear dira, YAKIN'erako artikulua bialtzen diranean.

Gero, itz-pilla oiek bildu, eta YAKIN'argitaratuko genituzke kultur-iztegi bezela. Bildu bear diran itzak ez dira its zeeak, goi xamarrekoak baizik: kulturari sartu ditezkenetakoak. Zeintzu diran oiek norberak ikusi bear du. Baña obe prakak zabalegi euki eta geiago sartzea, estuegi eukitzeagatik gutxielagik gelditzea baño. Bakoitzari bidaliko saio fitza-neurria, eta nola egin: beti itz bakarra fitza bakoitzetan.

Beste zera bat ere erabili genduan gure artean. Iakinlarion artean ale bereziak eta jakintza-liburuak nola eratu, alegia. Bat edo beste ba-ditugu bidean, eta Jainkoak lagun, datorren urtetik asiko gera oietako batzuk argitaratzen. Eginda bezela auek dauzkagu: "LOURDES", Lourdes'i burus dauden arazoak sañ artikuluko sorta batean bildurik. "MARIA", maristiko arazo nagusienak amar artikuluko sorta batean bildurik. Urrengo urterako "IKURTUNAK", edo zazpi sakramentuak bakoitza artikuluko batean zeastuas. Au ere nortzuk egin erabakita dago. Beste onelako lanak urtero argi taratzeko asmoa dugu, Jainkoak laguntzen badigu, beintzat. Era ontara, urte gutxi barru euskeraz genituzke TEOLOGI, FILOSOFI eta olakoak.

Askenik oar au: **EMENDIK AUERRERA EZ DA JARRIKO ALDIZKARIAN LANAK NOIZKO BIDALE BEAR DIRAN. EGINDAKOAN BIDALI, ETA LENBALEN EGIN.**

Elkarren jiran lurrean eserita saioa egin genduan. Gaiak bukatu-edo egin genitunean illundu xamarra zegoan eta Santutegirantz abiatu giñan.

Urrengo goizean batzu batsuk Urbia'ra igo gifiñ goizeko 5'30'tan. An meza entzun, gosaldü, eta Arantzazu'n gifiñ berris amarratarako. Egun ontako billeran itsak bil-tzeko liburuak-eta banatzen osatu genduan. Gaiñerakoan, an ikusi, ean, abestu-eta egin genituanak bizi egin bear dira, bizi. Lusak ez dauka almenik aien adierasteko. Bi eguntxo-ak jator bañio jatorrago igarota, elkarri agur egitera giño-aztenean, Bizkai'ko apaizagaia etorri zan. Jurtu jurtuan; alare, iakinlarion azkeneko kaixotasun-apurrak bildu zituan, beñepeiñ-eta...

Baña etsan orrekin amati gure euskal-eguna. Ala-bearres-edo, euskera bene benetan maite izan, eta Irlanda'ko puntatik etorritako euskalzale berri batenkin arkitu giñan:

Dr. P. L. HENRY'rekin. Dublin'go unibersidadeko izkun-tzalari bat da. Berrogei egun omen zeramaskian Mondrago'en euskera ikasten. Etxekian españera, eta nai ta naiez euske-ra egin bearra seguan. Jendeak ere ao-txabalik begiratsen zion euskara nola egiten zuan. Sekula ez dut somatu nigan alako postik, jendea, ezer esango bazion, derriorrez euskeraz egitera bearturik ikusten nituanean bezela.

Astebete egin zuan Arantzazu'n. Galdeketa edo kuestionario batzuk ekarri zituan betetzeko, eta bai saio ederrak egin ere Arantzazu'ko "Aitonarekin", Graziano'rekin. Ba-giñan bein Arantzazu'ko aldapan gora. eta toki bateko e-ta besteko euskeraren desberdintzai buruz ari giñala, auxe esan zidan: "Toki bateko eta besteko euskeraren arteko desberdintzak arriturik utzi zutela. OSO KOKORREK XIBALA ETA ETZEGOALA DESBERDINTZA MAMIKOREIK. Iglesias-eta askos ere sundiagoak zeuskatela beren baitan. Euskalki desberdi-ñetako gisonekin itz egin zuala, eta guxtiei ulertzen ziela. Bein pixka bat IKASI EZKERO oso errez gaindu zitezkele des-berdintasun oiek. Beraz, oso arriturik zegola Euskeraren desberdintasun GUTXILAGATIK". Eta papera eta lapitza beti beti berakin erabiltzen zituan gero, ots-desberdintza kox-korrenak ere oartzeko!

Zeiñen borobilla etorri dan auxe euskal-mots al-perrondo batsuentzako! Alajañena ta preskoa!

Orra gure euskal-billeraz esan bearreskoak esan-

da. Orain zeatz meatz jarriko ditut idaskera batasunari buruz artutako erabakiak; begi-kolpe batean ikusi ditza-gun.

BA izkia aditzarekin danean:

- 1) baiduna danean (afirmativo), itziri (guión) batez aditzari lotuta: "Bai, ba-dator"...
- 2) baldinduna (condicional) danean, ezer gabe aditzari batuta: "Aita badin badator"....

BA baidunaren eta aditzaren tartean beste itzen bat jarria danean:

- 3) askaturik gelditzen da "BA" ori: "Ba omen dator, ba ote dator?"...

EZ izkia aditzari ondoratzen zaionean:

- 4) aditzaren lenengo letra "z" ez baldin bada, biak banaturik eta aditza oso osorik gelditzen da: "Ez naiz, ez gera, ez luke"...
- 5) aditzaren lenengo letra "z" danean, aditzari batuta, eta bi zetak (z-z) "tz"-tan aldatzen dira otsarintzeko: "Ez sera:: eTZera, etziran,"....

BAI zergaitiduna (causal):

- 6) beti aditzari batuta, eta aditza batera aldatu gabe: "Aitak esan baidu"...
- 7) Aditza beti idatziko da: "dut, duzu, dugu..." eta ez "dot" edo "det"...
- 8) Aditzaren ugaritzaillea (pluralizador) -ZKI- isango da beti, eta ez -IT-: "Ekarri dizkiot, eta ez ekarri ditiot"...

Beste izkeretatik artutako itzak:

- 9) Izen nagusiak jatorrizko izkeratan bezela idatziko dira: "Heidelberg, Königsberg, Voltaire"...
- 10) its arrontak, mintzatzen diran bezela: "Teodizea, metafisika"...
- 11) Izen nagusiak apostrofo edo berezkatz baten bidez bereiztu bear dira bere atzizkietatik: "Donosti'ko, Jesus'en"....

- 13) Idasteunetako aipamenak egitekoan ez dira idatziko latinesko letrakin, euskerazkoekin baizik: "Lucas es baña Lukas, Filipotarrei"....
- 14) Sailketa edo dibisiokak egitekoan erderazkoak ez baña euskerazko letrak erabili bear dira: "a, b, C,".. ez baña "a, b, á, e,"....

Fernando Mendizabal

Arantsazu^{ko} teologari.

DORITA LOCHAK

Errusitar bat Euskalerrian ...

Zarauts errixka

lilluragarrian izan dugu aurtengo udara igaroz, Ipar-Ameriketatik etorri izandako errusitar-jatorrizko neska gazte jakintsu bat. Filologian egiten ari da eta burutu baino lenago tesis bat azaldu bearra zedukan. Eztakigu zerk idarokita baino gure izkuntza saarra sukera zuan ontarako. Bere irakasleak ere Polinesia erria galtzen ari dan izkuntz bat artu zuan gaitzat. "Euskal-fonetika" bada, autu zuan aztergaitzat.

Euskal-fonetikaren oinarri bezela Zarauts'ko ots-kera edo mintzakera autatu zuan, beste lekutakoak aldakuntzak bezela artuz. Berak euskera ezaki oraindik -ba-da alare ikasteko asmoa- eta magnetofon batekin etofit zitzaigun. Beiz Zarauts'en bere laguntzalleak egin zitun, eta egunero joan oi zitzaien gazte talde bat euskeras itz-aspetu bat egitera. Berak erri-euskera nai zuan noski. Etzitzaien aski jardunak eta berriketak biltzea, eta abestisk, bertsoak, ipulak t.a. biltzen eta biltzen asi zitzaisun. Ameriketara joanik ogei zinta utzi ditu emen betetzearren.

Geurts, Jainkoa lagun, emen izango degu berriro. Geurtzerako gainera euskal-gramatika bat egin bearrean dago bere Doktoradurako. Mitxelena jaunak lagundu dio asko bere lanean.

"Izkuntz bat aztertzeraz etorri, eta Erri batekin topo egin det. Barne-mufiak ikutu egin didan Erri batekin gainera". Bejondaizula! YAKIN aldiskaria ezagutu zuan eta arpidedun egin ere bai. Bijsakio gure orri oetatik gure agurrik eta leirik bizien eta anakorrena!

"Izkuntz bat aztertzeraz etorri zintzan, eta adiskidetasun-lorerik ederrenak lantzen dituan erri bikain batekin topo egin det. Bere itxurazko zakartasun aspian, jatortasun eta barne-auditahun egokienak gordetzen dituan anda batekin topo egin det. Gizadian urte aundia goa dut egun, len baino". Onatx bare askeneko itzak.

LIBURU BERRIAK :

Zorionean dira gaur gure surtxoek. Berentzako ezer gutxi egiten dana guztiok dakigu. Ona orain gauza oso polita oistrentzat: "PIPO konejutxu arrea". Xabin Berasaluzek euskeratuakako ipuitxo politikak dira. Oraindik esandako bat ori bakarrik argitaratu dute; baina ba-ditu beste bi anaitxo ere: "NINI konejutxu argia" eta "DONI, konejutxu negartia". Umetsuentzako eder ederrak. Kolore askokin eta guzti.

Olakoen bearra daukagu gure aurrak txikitatik euskera irakurtzen oituarazteko. Ongietorria, ba gure "PIPO konejutxu arrea".

Arantzazu'ko iraskolan argitaratuta dago.


ESKATU:

REVISTA S. ANTONIO

Santuario de Aranzazu

OKATE (Guipuzkoa).

P.M.



10 LAURLEKO